



ENKARNA UZKUDUN ▶ Presoei galtzerdiak egiten

- Nik zuri kalean ikusi nizun.
- Ama, Mikelek jo egin dit!
- Joaten gaitun(k) zinera?



**NOLA
ESATEN DA?...**

EUSKARAK AZPEITIAN DAUKAN KALITATEAZ GOGOETAK ETA EGITEN DIREN AKATSAK

Zeuk ere lagundu


hitza

urrola-kostako

- 1 Guk ere **hitzari** zerbait aportatzeko.
- 2 **hitza** euskaldunon egunkaria delako gu ere **hitzakoak** garelako.
- 3 Euskararentzat oso garrantzitsu delako.

ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak



mugi
kirolak



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

Hiruko txikian ▶ Iban Arregi

Azkena, Udalari

1 Zesar Martinez, EHUKo irakaslea: "Parte-hartzearen gaia asko instrumentalizatzen ari da, marketin politikorako erabiltzen ari da. Hau da, irudia hobetzeko, politika edo proiektu zehatz bat legitimatzeko edo, batzutan, protesta eta gatazka soziala desaktibatzen". Azpeitiko Udalak, 2003ko maiatzeko hauteskundeetatik talantea aldatu du, bai, eta asko erabili ditu "parte-hartzea" eta "elkarriketa" bezalako kontzeptuak. Ez da ba marketin kontua izango?

2 "Demokraziaz ari garenean, zertaz ari gara? Botere politikoa *demo*-aren esku edo herritarren esku egon behar dela, ezta? Ba aurrerapausoak eman nahi badira, prozedura berritzaileak bultzatu behar ditugu; bestela, oraingo joera boterearen kontzentrazioarena da, boterea elite ekonomiko eta politikoen esku, *lobby*-ak gero eta indartsuagoak baitira". Hori ere Zesar Martinezek esana da, eta hemen ere komeni boterea zabaltzea, aurrera egiteko, gatazka soziala desagertzeko.

3 Izan ere, *gatazka* asko dauzka eskuartean Udalak, gehitxo igual, eta gazteena ez da lokalarekin bakarrik konponduko, Habea baztertuta dago, euskararen normalizazioan ez da euskalgintzarekin kontaktzen, *Hitza*-k hasieratik laguntzarik ez, zaharren egoitzarekin istiluak, merkatariekin... Talantearekin "nahikoa ez" dela-eta, "ausardia politikoa" eskatu dio Ibarretzek Zapaterori. Ba horixe eskatzen diet nik ere, neure azken hiruko honetan, alkateari eta Udalari: ausardia, aurrera egiteko.

uztarria

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora

Egoitza. Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 57.a (2004ko abendua)

Urtea. VI.a

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. hitzko

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.400 ale

Inprimategia. Gertu

Azaleko marrazkia. Iñaki Martinez

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

[u-iritzia]

08 Inkesta. Abenduaren 6an Espainiako Konstituzioaren eguna da. Jai egin beharko al genuke euskal herritarrok?

10 Prentsa. 'Euskarazko prentsa eta Azpeitia' liburua aurkeztu ondoren: zein dira euskarazko prentsaren erronkak?

[u-mamia]

12 Bidailariak. Gazte asko joaten dira kanpora. Azkenaldian herritik urrun izan direnen kontuak bildu ditu Uztarriak.

14 Klik. Oholtza gainera salto egin aurretik egin beharreko prestaketak.

22 Xebaxtian Lizaso. 30 urteko ibilbideari gainbegiratu.



[u-jakiteko]

26 Ikurrak. Frankismo garaiko ikur batzuk topa daitezke oraindik ere herrian. Zer dela-eta jarraitzen dute?

[u-euskara]

41 EHE. Euskal Herrian Euskarazek 25 urte bete ditu. Azpeitian geroago sortu zen. Joxe Mari Galarraga sorrerako kidea eta Izaro Alkorta mintzo.



Bai Euskarari Zuzentzen
bai
Guk zerbitzua eta
lana euskaraz

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



Enbido ▶



Alaitz Olaizola

Berogailua piztu dute

Berogailua piztu dute, hotz egiten baitu kanpoan. Negua gaineen dugula abisatzeko modu aproposa. Berdin da, hotz ala bero, jada ez dago atzera egiterik. Ordubete baino ez zaigu geratzen. Orduan, ordu-beteren buruan, berriz ere, betiko galdera egingo diogu geure buruari: nork esan behar zigun guri saltsa honetan sartzeko? Etxean lasai eta epel egon besterik ez eta... Hemen gaude. Azken zigarroa erretzen, azken pentsamenduak izaten, azken pentsamendu propioak. Beroa gero eta handiagoa da. Arnasa faltako ote zaigu ba? Ez dut uste, hainbestetan pasatu gara hemendik.

Heriotza atean zain duen batek, akaso, gauza berak pentsatuko ditu, arriskuan dagoenaren moduan. Hauxe da egoeraren larria! Eta ez dago atzera egiterik. Hori nahi al huen? Ba hor daukan. Hiltzea bezala, zenbait momentutan, hiltzea bezala. Berriro jaiotzeko, ordubetez, berria sentitzeko.

Jendearen marmarra entzuten dugu eta hori, onada. Ikaragarritzko ilusioa jarri dugu egitera goazenean; besteak ere partaide egin nahi ditugu. Ez da erronka makala, badakigu beti ez dela lortzen. Baina orain, ezbaian egonda ere, pausoak aurrera baino ezin ditugu eman eta halaxe, elkarri animoak ematea baino ez zaigu bururatzen, betiko moduan.

"*Mucha mierda*" esan diogu elkarri; hala esaten da egoera horretan. Bitartean, milaka pentsamendu datozkit burura: hain gaizki sentitzen naiz, estu... Eta, era berean, hain beteta, eroso, pozik...

Argiak piztu eta hasi da funtzioa. Azpeitian antzerkia egitea mundiala dela pentsatu dut. Hemen goikusleak erantzuten du. Ez presentziarekin bakarrik, baita giroarekin ere. Sua piztu da, izatea hil eta berria piztu. Ihesi dabilenaren moduan, inora joan gabe, taula baten gainean libre. Ordubeteren buruan argiak itzali dira eta jendea txaloka ari da. Jaio naiz berriro, bizi-bizi, neure buruari, "merezi izan din", esanez. Pozik gaude, oso pozik. Ez baka-

rrik jendearen berotasuna sentitu dugulako, hori ezinbestekoa bada ere. Gu, gustura aritu gara lanean, disfrutatzen. Eta akordatzerako, esan beharreko guztiak esanak ditugu. Konparazio bat onartuko didazue. Hara, mariskoa ikaragarri gustatzen zaionak bezala da. Diru asko kostatuko zaio mariskada ederra egitea, lan ordu asko, izerdi tanta batzuk, gero ordu erdian guztia kolpe batez jateko. Egin du, baina, gustukoa! Guretzako berdin.

▶ **BUKATUTAKOAN.** Ezkutuan, elkarri bizkarrean kolpe batzuk eman dizkiogu ondo egindako lanaren ondorio moduan. Izerditan bukatu dugu, hori bagenekien. Gaurkoa bukatu bada ere, hurrengo emanaldian pentsatzea baino ez zaigu geratzen, bakoitzak geure lanbidera itzuli behar badugu ere.

Sentimentalismo hutsez idatzitako hitzak dirudite, neuk idatziak badira ere, irakurtzean, horixe esaten baitidate. Eta hala bada ere, zer? Han eta hemengo kontuez txutxu-mutxuka aritu naiz azken hilabete hauetan atal honetan, eta, gaurkoan, sentazioen kronika egin nahi izan dut. Aurtengoan, Udalak, antzerki amateurra omendu nahi izan duen moduan, hau da nire omenaldia. Pako Aristik bere liburuan dioen moduan, *Bokadillo baten truke* antzerkian aritu direnetzat. Barru-barrutik bizi izaten dudaren kronika, hainbesterekin akordatuta. Hainbeste aldiz esan digute, ero puntua badugula taula gainean horrela aritzea gogoko dugunok. Eta zer? Jubilatuta eta gero, baratzetan orduak pasatzen dituen kaletarraren modukoak gara gu. Beste zer eginik izango ez bagenu bezala.

Azpeitiak badauka antzerkirako zaletasuna, antzerkira joatekoa, egitekoaren adina. Ez dauka, ordea, horretarako beharrezkoa dena: behar bezalako aretoa (Jaingo arren!; zenbatek esan ote dugu dagoeneko hori!). Ezin gaurkoan ere kritikaxoa egin gabe bukatu! Hau marka! Aretoa izango denaren zaratak daude, orain benetako lanerako makinak zalapartari itxoin behar. Hala ere, suma daiteke antzerki amateurrearekiko Udalaren aldetik al daketa onuragarririk. Horren lekuko aurtengo programa. Ea ba, bide horri eutsiz, urtez urte, topaketen berezko espiritua berreskuratzeko gai garen.

HILEKO ESAERA ▶

Gustuko aldapan, nekerik ez

Uargi

MERTZERIA
LENTZERIA
KORTSETERIA



Julian Elorza 15, beheka Tel. 943 08 05 11

ERALDAKETAK ETA KONPONKETAK


pressto

Kalitatezko Tindategi
Azkarak www.pressto.com

kremailera apurtu zaizula,
soinekoa tarratu zaizula,
argaldu zarela

UTZI EZAZU

pressto-ko



PROFESIONALEN ESKU

Ojalak, kremailerak, barrenak, forroak, e.a.
Larruzko arropen konponketa



kalitatezko ERALDAKETAK
eta KONPONKETAK



larruzko jantzien ERALDAKETA
eta KONPONKETAK

Jose Artetxe, 9 AZPEITIA

943 81 63 62

Guardia kalea, 3 AZKOITIA

943 85 16 61

San Francisco, 32 ELGOIBAR

943 74 35 08



Azpeitiko
alde-zaharreko
Merkatarien
Elkartea

* Agirre Oparidenda
* Aintzin
* Disdira
* Egaña
* Jone eta Maikar
* Jostaldi
* Kimetz
* Martina Isasti
* Oinkari
* Romaes



**%10eko deskontua
eskatu eta erabili**

agirre oparidenda - erdikale, 1

aitzin - santiago 8

disdira - elizkale, 1

egaña - santiago, 16

jone eta maikar - julian elorza, 7

jostaldi - erdikale, 15

kimetz - julian elorza, 5

martina isasti - julian elorza, 5

oinkari - julian elorza, 5

romaes - eliz kale, 3

Azpeitiko alde-zaharreko Merkatarien Elkarteak • eliz kalea • 943-151786



ZURE BEREZKO DOTOREZIA JANZTEN DUGU

LURRINAK - BITXIAK - MAKILLAJEAK - OSAGARRIAK

gotain



LURRINDEGIA

ERDIKALEA 3, AZPEITIA
TEL. 943 814 358

**BILATZEN DUZUNA BILATZEN DUZULA,
BETI GAUZA BERA AURKITUKO DUZU**

AUKERARIK ZABALENA

Era guztietako produktuak eta zerbitzuak, diseinuak eta prezioak. Nahi dituzun bezalako baxerak edo mahaitresnak, ateentzako heldulekuak, gortinentzako barrak, tiradera-
eskulekuak, sukalderako osagarriak eta etxerako eta brikolaje-lanetarako behar duzun guztia... **etxeberrian** den-dena aurkituko duzu. Baita gure profesionalen arreta eta laguntza osoa ere.



**etxe
berria**
Brikolajea & Etxea

GARMENDIPE KALEA, 1 (futbol-zelaiaren aurrean) • 20730 AZPEITIA

BADUZU NON AUKERATU

Arrazistak gu? Bai zera!



Koldo Aldalur

Eta nik uste nuen euskaldunok arrazistak ginela, besterik gabe. Berezkoa genuela, alegia. Hachim-en gurasoak etorri berriak dira Azpeitira. Ama, oso gaztea oraindik, hor dabil bere buruko zapi eta guzti, nabarmen asko. Tetuan-etik hurbildu dira gurera eta nahiko egoera berezian bizi dira. Aitak, hemen eta han, lantxoak topatu ohi ditu baina gustu-gustukorik ez, eta amak ere zerbait egin nahi luke etxeko ekonomiari beste martxa bat emateko. Senarrak, egia esan, ez dio gehiegi laguntzen lan bilatze horretan.

Hachim bost-sei urte inguruko mutil koskorra da. Tximista baino biziagoa. Ikasberriari ari da ikasten, eta herrian ditugun atzerriko beste hainbat familietako neska-mutil asko bezala, euskaraz suelto aritzen da, eta hori, ikastetxearen meritua baino gehiago, haiek ikasteko duten abildadearen ondorioa da.

Istorio honek itxura polita du baina ez dakit ba hain polita den. Goxotasun txikiegia antzeman daiten haien inguruan. Garen bezalakoak garelako, gehiegi hurbiltzeke mantentzen ditugu. Kanean, gure umeak haiekin jolasean, bale, baina etxera ez ekarrita, hobe igual. Gurasoekin zerbait hartu tabernaren batean, bale, baina soziedadera kuadrilako afarira... ez dakit ba. Auskalo zer jaten duten eta zer edaten duten! Ez asmatzeko, gonbidatu ez, eta, seguruena, asmatu.

Horrelakoak gara eta aldatzeko gogo txikia. Ez dut aipatu ere egin nahi gaztarora iritsitakoan etxeko bakarren bat kanpotar haietako bakarren batekin liatzen bada. Liatu bai, 'enrollatu' osteko egunean berriro elkarrekin segitzea erabakitzen badute. Lotsaren lotsaz ez diogu gureari harekin ez ibiltzeko esango —nola ba, hain aurrerakoia izanik— baina, aitor dezagun, aukeran bertako bat topatzen badu, kasik nahiago. Kiratsa dariola baderitzozu geure burua zuritzeko buru-eskema honi, ez kezkatu, askoren gaitza da eta. Askorena, beraz, gurea ez.

Kontua da duela aste batzuk bakarren batek oparitu diola bizikleta zahar bat Hachimi. Bueno,

bizikleta bat bat gehiago, freno eta pedaldun burdin puska bat. Hura ganbaran gordeta zuenak ere ez du gauzak zaborretara botatzeko afizio handiegirik!

Eta gure marokoarra pozik euritan blai, tximu eginda. Putzutik putzura, hanka puntetan, ipurdia hara eta hona, eragin eta eragin integrazioaren helmugara iristeko asmotan.

▶ HACHIM ETA MOHAMED EZ DIRA BERDINAK.

Eta horretan ginela heldu zaigu herrira Mohamed txikia. Hori ere marokoarra eta adin beretsukoa. Begiak bai, ixterakoan haize korrentea sortzen duten horietakoak, dotoreak. Aita-amak ere ikustekoak. Amak ez dakit seguru zer egiten duen baina aita badugu norbait; gorbata koloretsua, kotxe handia, Aimar Irigoienek altxatzeko lanak izango lituzkeen urrezko eraztuna, katarroa uaxtzen duen kolonia usaina... Teknikoa. Edo arkitektoa. Hori ere ez dakit.

Semeak bateria duen motoa du. Gorri-gorria. Lagun ugari eta ondo irabazitako prestigioa. Motoa, alegia.

Aita herriko soziedade batean genuen orain hurrena. Denak alboan zurikerian, prestatutako mokadurik goxoena eskainiz, eta ahal den konbertsazio atseginena emanez. Orduantxe jakin nuen zenbat diru zebilen Azpeitian, zein ondo dabilzan herriko enpresak, Europan pertsonako BMW gehien dagoen tokia dela, obra ikaragarriak egin behar dituztela etorkizunari begira, oraindik eta hobeia izan dadin, istilurik ez dela apenas izaten eta abar. Eta ni oraindik enteratu gabe.

Aberatsaren ondoan esertzean aberaskiloon usteak puztu egiten dira, itxuraz.

▶ AZAL KOLORE KONTUA AL DA GUZTIA?

Horregatik nioen arrazistak baino gehiago, lerdo hutsak garela. Arazoa ez dela kanpotik datorren horrek zer kolore duen, baizik eta kartera beroa duen ala ez. Edo zer uste duzue, Ronaldo txikito batzuk hartzera Erdi kalera etorriko balitz, CDak saltzera datorrenari bezala begiratuko geniokeela?

Ah!, ahaztu baino lehen: herenegun lagunarteko karreratxo bat egin dute umeek Damaso plazan eta Hachimek bere burdin pusketarekin irabazi omen du. Mohamed epaile jarri zuten. Motoan buelta bat uztearen truke.

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Galdetuz ▶

Abenduko zubia jai egin beharko al litzateke?

JAIONE UZIN ▶

azpeitiarra



"Nik jai dut, baina gero eta jende gehiagok egiten du lan egun horretan. Nik uste hemendik

urte gutxira inork ez duela jai egingo abenduko zubi horretan".

JOSE MARI SALABERRIA ▶

azpeitiarra



"Horixe jai egin behar dela. Lehen ere nahiko lan egiten dugu urte osoan eta ahal den

guztian egin behar da jai. Nik, behintzat, ahal dudan guztian egiten dut jai".

GLORIA ESKUDERO ▶

erreizildarra



"Ez, ezta pentsatu ere. Nik, behintzat, Espainiako Konstituzioa ez dut nire sentitzen eta ez

dut uste Euskal Herriarentzako egina denik. Beraz, ez litzateke jai egin beharko".

JESUS MARI EIZMENDI ▶

azpeitiarra



"Nik, egia esan, jai gustura egiten dut. Jai ematen didaten bitartean, horrela egingo dut. Baina

aukeran nahiago nuke Santo Tomas eguna jai egin".

Hau ▶

Argia eta iluminatuak



Aitor Aranguren

Aldez aurretik esan Azpeitiko Udala beti arduratu dela argindarraren kontsumoarekin, bai bere eraikinetan, bai herriko argietan. Izan ere, orain urte gutxi Energiaren Euskal Erakundeak (EEE-EVE) egin zion azterketan oso nota altua ateratu zuen.

Askotan botatzen diot begirada Izarraizko harri puska dotoreari, udaberri koloretsuan eta negu ilunean, egunez eta gauez, ez naiz asperitzen. Mendi hori Azpeitikoa izanik, inguruko mendien baino gehiago izan behar, eta bere izenari ohore eginez, izarren pare, argia du Xoxote puntan. Testu hau idaztean ohartu naiz ez dela gauero pizten; horrexegatik gustura jakingo nuke nork eta noiz pizten duen. Mendi horren azalean marraztu eta eraiki ditugun bide, dorre eta etxeak nahikoak ez eta, gainera, gauean bakean utzi ezin. Proposamena Udalarari: betiko itzali, ez da beharrezkoa. Ez dut uste patroia handia haserretuko zaigunik.

Antzeko sentzazioa dut Enparango zubiarekin: bere gainetik igarotzen naizen bakoitzean argi gehitxo ote duen iruditzen zait. Azpeitian dugun zubi dotoreena, aldiz, Amuko zubi, ahaztuta, triste, zikin eta itzalita daukagu. Zapaldu eta erabili ezin dugun zubi honen presentzia berreskuratu behar genuke egoki argiztatuz, Azpeitiko paisaia ikusgai eginez, ondotik pasatzen diren autoei gogoraraziz inguruzatar horretan elementu zoragarri batek irauten duela, zutik, tente, arro, piztuta.

Gure Inazio iluminatuta daukagu Xoxote puntan, artifizialki. Baina bi hanka eta buru gutxiko pertsona batzuek badirudi iluminatuta egote hori berezkoa dutela. Komikietan bezala, bat-batean, klik!, bonbila pizten zaie eta, adibidez, beste zereginik ez eta herriaren izenean kanpin-gasero bihurtzen dira, Bastida alkate ohiaren etxe ondoan historia pasatuko den ekintza burutuz. Penagarria. Klik!

Apunteak ▶

GORA.

34 urtean jardun du Imanol Eliasek Azpeitiaz eta azpeitiarrez idazten. Azaroaren 20an argitaratu zuen horrelako bere azken lana (*Azpeitia, 500...*) eta aro hori bukatutzat eman du. Herriaren alde lan handia Imanol Eliasek egin duena.

GORA.

Azken orduko ezusterik ezean, gazteek euren lokala izango dute (Damason), akordiora iritsi direlako Udalarekin. Urte asko pasatu dituzte eztabaidan ez ezik, ika-mikan ere bai, baina azkenean ados jarri dira. Hori da bidea, arlo denetan.



Amuko zubi ingurua. I. AGIRRETXE

BEHERA.

Amuko zubia pasatu eta Landetara joateko bidea oso arriskutsua dago oinezkoentzat. Izan ere, ez dago espaloirik, ezta argirik ere.

Uztarria.com ▶

Inkesta.

Poesia liburuak irakurtzeko zaletasunik ba al duzu?

- ▶ Bai. %12,1.
- ▶ Ez, ez baitut ulertzen. %21,2.
- ▶ Ez, ez baitut gogoko. %49,5.
- ▶ Tarteka. %17,2.

Orain dagoena.

- ▶ Inkesta. Zer iruditzen tabakoaren aurkako neurriak?
- ▶ Eztabaida. Zeintzuk izan beharko lirake euskarazko prentsaren erronkak herrian?

Zer dio? ▶ Jabier Altuna (Udaleko Giza Baliabideak eta Antolaketa batzordeburua)

Kalea denona da

Iban Arregik, Uztarrian aurreko artikuluan, ustezko zerbaite oinarritzat hartuta ("baten bat zaratagatik-edo kexatuko zen"), balorazio bat egiten zuen: Udalak ezin du dena arautu, dena debekatu, biltzeko eskubidea urratu. Horren aurrean, zera esan nahi dut:

1. Udalak ez du ez dena arautu, ez biltzeko eskubidea urratu, bi lekutan izan ezik: Trinkete atzean eta batzoki atzean. Asmoa ez da biltzeko eskubidea urratzea, ondorengo ekintzak moztea baizik.

2. Familia asko, askotan kexatu dira.

3. Lekuotan gertatu diren gauzak hauek dira (etxepekoek egin dituzten idatzietan idatzitako gauzak):

▶ Egun guztian eta gauzez buila galanta, bertara irratia ekarrita; lo egitera amaren etxera joan beharrean aurkitu direnak ere badira, erreleboetan lan egiten dutelako egunez lo ezin eginda.

▶ Motorrekin bertara sartu.

▶ Paretak eta kableak puskatu, kaineriak ataskatu; ura gainezka balkoietan, ondorioz.

▶ Sua egin; eskegita lehortzen zeuden arropak erre; txiza egin, garajetaraino pasatu arte.

▶ Balkoietara igo baloia jasotzera.

▶ Txerri eginda utzi lekua.

▶ Etxepekoak iraindu eta gauzak bota beraiei.

Beraz, etxepekoek eskatuta, egoera baloratu genuen, hainbat gauza aztertuz; erabaki hori hartuz.

Kalea biltzeko da, baina lekuek eta etxepekoek begirunea behar dute. Hori balego, horrelako neurriak hartzea beharrezkoa ez litzateke izango.

Egia da bandoa idatzita dagoen era gogor samarra dela ("galarazita pasadizo honetan biltzea"), eta enkargatu genituen plaka berriak beste esaldi batekin (Ibanen artikulua hura azaldu aurretik). Beraz, aztertu erabakia bidezkoa den ala gehiegikeria.

Trujilloko bizipenak

Sei hilabete pasatu dira dagoeneko. Maiatzean idatzitako artikuluan Jose Inazio Zudupe azpeitiarraren apaizgintza aipatu nuen, Perura itzultzeko asmotan zela adieraziz. Duela pare bat hilabete idatzitako eskutitzean, hilabete horietan bizitakoak hartzen ditu gogoan. Haren esperientzia adierazgarria iruditu zaidanez, hona hemen:

"Duela lau hilabete itzuli nintzen, eta gure lana aurrera doa. 100 bat pertsona elkartzen da iganderoko Ebanjelioa aztertu, otoiztu eta bizitzarekin lotzeko. 14-20 urte bitarteko 300 bat gazte biltzen da, 10 arduradunekin. Hasten ari gara, baina etorkizunari begira, garrantzizkoa izan daiteke lan hau. Euren gurasoak ere, amak batik bat, elkartzen ditugu giza eta erlijio heziketa bideratzeko. Unibertsitarien taldea ere badugu: 60 bat boluntario. Hauek Trujilloko auzo ezberdinetan ari dira lanean.

Giza eskubideak gogoan hartzen ditugu; haur, gazte eta emakumeenak era berezian. Igandeetan Trujillo goreneko auzoetan ospatzen dugu Eukaristia; bertan gazteek eta familiek hartzen dute parte.

Horiek gure lan, neke eta pozak. Bost hilabete dira apaiz egin nindutenetik, eta denbora interesgarria izan da niretzat. Gauza batzuk ikusi eta ikasi ditut. Jendeak azaltzen duen aholku beharra, familia bizitza, bikotea, seme-alabak, barne sufrimendua... Askok sufritzen du jendeak!

Sufrimendua, gaixotasuna eta heriotzaren mundua gertutik bizi dut. Dei egiten didate adineko pertsonengana, gaixoengana, eta heriotza zorian daudenengana hurbiltzeko. Horrekin batera familien samina, ospitaleen egoera larria... Behar espiritualak ere agertzen da hemen. Bere erara, apaltasunez, Jainko gose dira.

Lan handia da sinesmena, elkartasuna eta solidaritatea bat egitea. Apaiz izatea garrantzitsua da, inguru honetan".

◀ Eta beste



Kepa Susperregi

Euskarazko prentsaren erronkak Azpeitian

www.uztarria.com-eko eztabaida ▶ Uztarriak urriaren 30ean 'Euskarazko prentsa eta Azpeitia' liburua aurkeztu zuen. Herrian arlo horretan egin den lana jasotzen du...; baita ildo nagusien berri eman ere. Gaiak garrantzia duela eta, uztarria.com-ek Eztabaidan galdera hauxe jarri du: 'Aurrera begira, zeintzuk izan beharko lirateke herrian euskarazko prentsaren erronkak?'. Hemen ale batzuk.

Uztarriaren azken liburua dela eta, hainbat gauza

Uztarriaren azken liburuan, *Euskarazko prentsa eta Azpeitia*-n dauden datuak hartu, eta horra datu positibo batzuk:

▶ 2002ko urtarrilean *El Diario Vasco*-k egunero 1.250 aleko aldea kentzen zion Azpeitian *Egunkaria*-ri. 2004ko urrian 887 alekoa *Berria*-ri. Hortaz, gure herrialde hori 363 aletan murriztu da egunero. Bi urte eta hamar

hilabeteen aurrera egin du euskarazko egunkariak.

▶ 2002ko urtarrilean *DV* zen Azpeitian egunero egunkaririk zabalduena: 1.367 ale. 2004ko urrian, berriz, *Urola-Kostako Hitza* euskarazko egunkaria da zabalduena geure herrian: 2.200 ale egunero. Une hauetan *Urola-Kostako Hitza*-k *DV*-ri 960 aleko aldea kentzen dio egunero. Bada zerbait. Gainera, *Hitza*-k *DV*-k baino gehiago informatzen du Azpeitiaz (eta hobeto ere bai, neure ustez).

Aurrera begira zer? Ez legoke gaizki:

▶ Gaur egun informazio orokorreko euskal prentsak (*Gara*-k, *Berria*-k, *Deia*-k) egunero 823 ale saltzen dituzte Azpeitian. *DV*-k 1.240. Ea parean jartzen ditugun laster. Oso garrantzitsua izango da hori, balantza informatiboa gure alde jartzea.


▶ Nik uste posible dela *Berria* Azpeitian 500 erosle / harpidedun izatera iristea. *Urola-Kostako Hitza*-rekin batera, alde horretatik, egin beharko litzuke kanpaina

bateratuak Azpeitian eta eskualde osoan (*Berria*-ren enpresa EKT, *Hitza*-ren enpresako bazkidea da, gainera, ezta?).

▶ *Urola-Kostako Hitza* ekonomikoki sendotu egin behar dugu: Azpeitiko Udalak (ere) diruz ondo lagundu beharra du (ez al dute gure agintari jaunek prentsaren garrantzia ikusten ala?) eta irakurleok ere diruz lagundu beharra dugu (Uztarriakoek esan dute, Kaiton bi aurkezpen desberdinetan entzun dudanez, *Hitza*-k irakurleon artean diru bilketa kanpaina hasi duela). Animo!

Egunkarien zabalkundea Azpeitian ▶

iturria: Uztarria ▶ aleak igandean



Lan ideologikoa. Horretarako, oso garrantzitsua da Azpeitian lan ideologikoa egitea. Mezua: euskarazko prentsa, Euskal Herria da; *DV*, Espainia.

▶ Seme-alaba euskarazko hezkuntza ematen den ikastetxera eramaten duen guraso horrek ezin du etxean euskara (hezkuntza, euskalgintza...) despreziatzen eta erasotzen duen egunkaria sartu.

▶ 45 urtez azpikoek euskarazko hezkuntza jaso dute, eta ez lukete prentsa euskaraz irakurtzeko arazorik izan behar. Hemendik aurrera giro hau lortu beharko litzateke: herrian 45 urtetik beherako *DV* erosleak ez izatea gehiengo inola ere, eta erdia baino gutxiago izatea gainera. Adibide bat jartzeraren: garai batean soldadutzara joaten ez zirenak ziren 'arraroak', baina gero joaten zirenak ziren 'arraroak'; lan handia egin zelako eta konpromiso galanta erakutsi

zutelako gazteek, eta erakunde-
en-eta babesa ere izan zutelako
ondorioz.

► Uztarriak segitu beharko luke,
eguneroko lanean eta euskaraz-
ko komunikabideak sortzeaz
gain, lan ideologikoa ere egiten,
orain arte bezala (horra hor libu-
rua).

► Komertzioek eta enpresek ere
zeresan handia dute: publizitate
bidez beraien errentagarritasuna
bilatuz, aldi berean horrekin finan-
tza dezatela euskarazko prentsa.
Hartara, publizitate hori lortuz,
euskarazko prentsak diru gehia-
go luke (lan baldintzak hobetze-
ko, produktu gehiago eta hobeak
izateko, irakurleei zerbitzu hobeak
emateko, kanpainak egiteko...).

► Udalak, euskarazko prentsa
diruz laguntzeaz gain, hau ere
egin beharko luke: euskarazko
prentsaren aldeko sustapen kan-
paina handia eta etengabea
(publizitatea, irakurle posibleei
laguntzak, kontzientziazioa, ikas-
tetxeetan sartu euskarazko prent-
sa...). Azken batean, azkenean
diru laguntzak eman ematen
dituzte erakunde publikoek
(oraindik Azpeitikoak ez *Hitza*-ri
baina...), baina beste lan hori ez
dute egiten, eta bestea bezain
garrantzitsua da.

► Zerbait

Eskelak lortzen hasi behar

Nik ulertzen dut jendea *Hitza*-ren
alde ateratzea, neu horrela nago-
elako, eta denok Udalari diru la-
guntza eskatzea. Orduan hori da
erronka bat herrian daukaguna.

Baina Uztarriak bota duen gal-
dera ez da horretara mugatzen,
nire ustez. Diru laguntzak lortzeaz
gain, beste gauza batzuk egin
behar dituelako euskarazko prent-
sak.

Adibidez, eskelak lortzea.
Hutsaren hurrengoa da *Hitza*-
n, *Berria*-n... eskelen presen-
tzia. Zer ba? Arrazoi asko
egon litezke: *El Diario*
Vasco-k hartuta izatea terre-

no hori, *Hitza*-k eta *Berria*-k arlo
hori ez lantzea... Diru pila bat mu-
gitzen da eskelekin (entzunda
nago *El Diario Vasco*-k urtean
mila milioi pezeta irabazten ditue-
la horrela), eta euskarazko prent-
sak hasi behar du garrantzia
ematen. Esaterako, *Hitza*-k plan-
teamentua zabaltzen. Hau da:
Urola-Kostako Hitza gure eskual-
dekoa izan arren, hemen sartzen
den eskela bat beste Hitzetan ere
jartzea prezio berean. Nire ustez,
familiak eskela jartzen duenean
ez du soilik bilatzen bertako jen-
dea enteratzea, baizik eta beste
eskualdeetako jendea ere en-
teratzea. Jar liteke *Berria*-n ere
hori.

Familia aipatu dut. Baina *DV*-n
ez da egoten familiaren eskela
bakarrik. Azkoitiko ziklista hori hil
zenean, 24 eskela zeuden *DV*-n.
Haien artean, asko ziren lagune-
nak, elkarteak eta abar. Hor
dago terreno bat lantzeko, eta
ahoz ahoko lana egin behar dugu
euskaltzale denok. Hau da: txipa
izan behar dugu horrelako eske-
lak *Hitza*-n jartzeko.

► Erronkak

Beste erronka batzuk ere bai

Ados eskelen gaiarekin. Gehitu
behar dira erronken artean, publi-
zitatea, herrien arteko elkar
laguntza, egitasmoak,
eta *Hitza*-ri dagokio-
nez, herrietan
gertatzen
diren ekital-
diak ere
aipa-

tu. Ikastoletan *Urola-Kostako*
Hitza zabaldu, haurrek ezagutu
dezaten inguru honetan egunkari
bat badagoela, eta ikas dezaten
euskaraz irakurtzen (egunkaria).
Erronka arlo guztietan zabaldu
behar dela iruditzen zait. Dirua
garrantzitsua da.

► Izar

Kazetaritza etikoa egiten segitu

Aurrera begira, zeintzuk izan be-
harko liratekeen herrian euska-
razko prentsaren erronkak? Ondo
informatzen segitzea, hori da
erronkarik nagusietakoa. Bide
batez, horrela ere jendea mota
horretako kazetaritza etikora eta
proiektu euskaltzalera biltzen se-
gitzeko.

Zergatik diodan hori? Gaur
goizean (azaroaren 16an), beder-
ratzietan, Radio Euskadiko albis-
tegietan, lehen esaldia, motza,
tinkoa: "*Gran operación contra*
ETA". Bai, Radio Eus-
kadin hori, ez
Radio Na-
ciona-
len,

COPEn edo dena delakoetan.
Radio Euskadin. Espainiako Poli-
ziaren eta Baltasar Garzón epai-
learen mezuaren bozeramaile
lanak fin-fin eginez eta kazetari-
tzaren oinarri-oinarrizko arauak
pikutara bidaliz.

► Enekoitz Esnaola

Idazkera kaletarragoan

Nik ere badiot mitoa dela zera:
euskaraz delako irakurtzen dela
euskarazko egunkaria edo aldiz-
karia gutxiago. Horra Uztarriaren
eta *Hitza*-ren tiradak. Bai uste du-
dala, ordeak, euskarazko prentsan
idazkera freskoagoan idatzi
behar dela, kaletarragoan. Nola
hitz egiten da kalean? Ba halaxe
prentsan, arrunkeiak saihestuta.
Esate baterako, nola idatziko ge-
nuke: "Lagun Onakek garaipena
lortu du" edo "Lagun Onakek ira-
bazi egin du"? Zeinek sortzen
digu traba leitzean?

► Joxe



beste zerbaiten BILA

Falta denaren bila beste norabaiterako bidea hartzen du hainbatek. Asmo jakinik gabe askok, inprobisazioa motxilan hartuta denak

► Testuak: Nerea Uranga eta Oihana Elduaien

Zeren bila doazen oso argi izan gabe, baina hemen ez duten zerbaitekin topatu-ko direlakoan beste herrialdeetara jotzen dute askok.

Azpeitian ere bada horrelako esperientzia bizi nahian motxila bizkarrean kanporako bidea hartu duenik. Egingo dutenaren gutxi gora-beherakoa buruan izaten dute joaten diren gehienek, baina inprobisatzea tokatzen zaie guztiei. Etxerako gogoak auzoan, urrutira. Uztarriak bi adibide bildu ditu.

LUIS ETXANIZ ►

“Bizitzeko esperientzia pasatzera joan naiz”

Luis Etxanizek ekainean lana utzi, motxila egin eta Hego Ameriketarako bidea hartu zuen. Bost hilabetez ibili da han eta azaroaren hasieran bueltatu zen. “Buelatzeko egunik jarri gabe joan nintzen, diruak ematen zuena arte”.

Bost hilabeteotan Argentina, Bolivia, Peru, Brasil eta Uruguain ibili da. Biziko esperientzia bizitzera joan zen: “Aukera nuen, dirua nuen aurretuta eta bizian igual berriz ere horrelako aukera-



Luis Etxaniz, Perun, Andeetako mendikatean. Bost eta sei mila metroetako hiru gailur igo ditu. LUIS ETXANIZ

rik ez dudalako edukiko joan nintzen. Biziko esperientzia pasatzera joan nintzen eta gustura etorri naiz. Batik bat, Andeetako mendikatea ezagutzera joan nintzen”.

Andeak ezagutu bakarrik ez, gailur batzuk ere igo ditu. Perun sei mila metroko Toictlaraju eta bost milako Urus igo ditu, eta Bolivian sei milako Goina Potossi. “Gehiena neure erara egin dut, bestela garesti ateratzen delako.

Herrialde merkeak dira, baina atzerritarra izanda, dena dolarretan kobratu nahi dute”. Hala ere, inoiz ez da bakarrik sentitu: “Mendian beti bilatzen da jendea”.

Mendian ibiltzeaz gain, turismoa egiteko eta hango herri txikiak eta jendea ezagutzeko aukera ere izan du. Han gehien gustatu zaiona, “jendearen irribarrea” izan da. “Izugarria da, batez ere Bolivian eta Perun. Pobrezia han-

dia dago, baina, hala ere, gustura bizi dira. Beti kalean jendea dago, kalera ateratzen dira, eta giroa eta saltsa dago, eta ez da nabarmentzen jai eguna edo asteguna den”. Egon den herrialdeetatik gutxien gustatu zaiona, berriz, Uruguai izan da. “Hala ere, han gutxi egon naiz eta ez dut asko ikusi, baina hondartza politak ditu”. Argentina aldean leku ederrak bai, baina nola dauden ez

zaizkio gustatu: “Leku ederrak daude baina oso esplotatuta, dena turistentzako prestatuta dago”.

Luis Etxanizek esan bezala, bost hilabeteko esperientzia bizi, diruak bukatu eta etxera bueltan abioia hartzea erabaki zuen, azaroaren hasieran. Baina bazterrak ezagutzeko gogoak ez zaizkio itzali: “Nire ilusioa Nepalera joatea da, baina lehenengo Pirinioetan eta Alpeetan ibiliko naiz, eta ea egunen batean hara iristen naizen”.

ENERITZ OIARTZABAL ▶

“Esperientzia berriak bilatu eta gozatzera joan ginen”

“Bizia laburra da, eta ahal den heinean gozatu egin behar da”. Hori eta esperientzi berria bizitzeko irrika izan ziren Azpeititik joateko bultzada Eneritz Oiartzabal eta bere bikotekidearentzat. Eguraldi epelaren bila, Mexikora jo zuten aurrena, handik Guatemalara, eta gero Costa Ricara (bitarteko herriak pasatu egin zituzten) eta Costa Ricatik, berriz, hegazkina hartu eta Venezuelara. Bi hilabeteren bueltan elkar ikusiko zutela esan zieten etxekoei, baina bost hilabete itxoin behar izan zuten.

“Egun bakoitza desberdina zen eta abentura bat”. Asko gustatu zitzaion hori Oiartzabali. Izan ere, “hemen beti etorkizuneko planak egiten ari gara: astea lanean pa-



Eneritz Oiartzabal —ezkerretik bigarrena— Mexikon. Guatemala, Costa Rica eta Venezuelan ere ibili da. E. OIARTZABAL

satzen dugu, gogoia asteburuan dugula”. Han egiten zutenak ez zuen horrekin zerikusirik. Egun bakoitzean, “gaur zer egingo dugu?” pentsatzen zuten. Hain galduta zuten denboraren ardura, ezem orduz nahastea gutxi balitz egunez ere nahastu zirela. “Ez ginen aklaratzin zein egunetan geunden, eta behin andre bati galdetu genion. Geure buruaz barre ederrak egin genituen”.

Aurkitu zuten guztia ez zen ona, ordea. “Hemen oraindik ere matxismoa baldin badago, han

oraindik eta gehiago dago”. Izan ere, harrিতa geratu zen emakumeak zenbateraino dauden gizonen menpe. Bertako mutilek atzerriko emakumeekin duten jarraera ere ez zitzaion gehiegi gustatu. “Mutil-laguna eta biok parrandara atera ginen. Guregana segituan hurbildu ziren hango mutilak. Nik uste dut kanpoko emakumeekin irudi okerra dutela. Badakite zenbait gauzatan pentsamendu irekiagoa dugula, eta ondorioz errazagoak garela uste dutela iruditu zitzaidan”, dio.

Bertako jendearekin nahastea aukera ere izan zuten, batik bat Venezuelako eskola batean jardun zuten lanean, boluntario. Indigenen eta georago hara joandako venezuelarren artean alde nabarmena zegoela konturatu ziren. “Venezuelakoak oso irekiak dira, baina gu geunden eskola hartan baziren indigenak ere, eta haiek oso-oso itxiak iruditu zitzaizkidan”.

Ahal dutenean egingo dute berriz ere motxila, Nepal aldera joateko “ilusioa” dutelako. ◀


HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGOIAK

Biele



antzerkia

ATZETIK


Nolakoak dira antzezlanak taularatu aurreko prestaketak? Honatx azpeitiar aktoreek azaroaren 20an Soreasun egin zuten lanaren prestaketak

► Argazkiak: Uztarria



‘MARITXU NORA ZOAZ EDER GALAN HORI...’

Azaroaren 20an taularatu zuten 28 aktorek Azpeitiko pertsonaia zelebreei buruzko antzezlanak, Soreasun. Baina taularatu aurretik, prestaketa eta nerbio asko izan ziren.



AZKEN ENTSEGUA.


Azken entsegua azaroaren 20an bertan, arratsaldean egin zuten. Argazkian, Idoia Uranga antzezlanaren zuzendari azkoitiarra, azkeneko oharra ematen.

PERTSONATIK PERTSONAIRA.

Norberaren arropak kendu eta pertsonaian benetan barneratzeko ordua heldu zen. Argazkian, antzelana egin zuten emakume batzuk pertsonaiaren arropak janzten.


BASERRITARRAK.

Pedro Otaegi eta Boni Alegria aktore azpeitiarrak, San Agustinpeko bankoan egon ziren kontu kontari taularatzeko ordua iritsi bitartean.



BOKADILO BATEN TRUKE, BAI.

Pako Aristik honela jarri dio izena aurtengo antzerki topaketarako egin duen liburuari: *Bokadillo baten truke*. Hona adibidea: argazkian, Imanol Guridi otartekoa jaten.



ERREPASOA.

Taularatu aurretik bada esan beharrekoari azken begiratu bat eman nahi dionik ere. Argazkian Iñaki Bergara *Pio*, orriei begira.



POLIT-POLIT.

Taularatu aurretik makilatu beharra dago; izan ere, makilaia pixka bat ez da gaizki etortzen argiekin apain-apain agertzeko. Argazkian, Rosa Borda.

Uztarriaren liburuak Durangoko Azokan ▶



Euskarazko prentsa eta Azpeitia



Uztarriako hiru liburu Durangoko Azokan salgai izango dira, abenduaren 4tik 8ra, Elkarlanean argitaletxearen postuetan.

'Azpeitiko efemerideak'.

- ▶ 360 orrialde.
- ▶ Imanol Eliasek egin (2003).

'Azpeitiko mendi gida'.

- ▶ Inguruko 19 ibilbide.
- ▶ Uztarriak, Lagun Onak M.B.-rekin batera argitaratua (2004).

'Euskarazko prentsa eta Azpeitia'.

- ▶ 176 orrialde.
- ▶ Uztarriak argitaratua (2004).

'Takolo': 2. edizioa kalean

Joxe Takolo liburua-ren 2. edizioa azaroaren 27tik kalean da. 2001ean atera zuen Uztarriak 1.a, 1.500 ale (azkar agortu ziren). Orain 500 ale atera ditu, Udalarekin elkarlanean. Udalak, Lagun Onak M.B.k eta Uztarriako bazkide berriek jasoko dituzte aleok.

'Literatuzta': 4.a laster

Literatuzta Taldeak 4. liburuxka kalera-tuko du abenduan. Idazleak hotel bat-ean izango dira.

abenduaren 18an izango da BAZKIDEEN BATZARRA

Heldu da 2004. urteari gainbegiraturua egiteko unea, eta hala, Uztarria Kultur Koordinadorak laster egingo du bazkideen urteko batzarra.

- ▶ Eguna. Abenduak 18 (larunbata).
- ▶ Ordua. 12:15ean lehen deialdia. 12:30ean bigarren deialdia.
- ▶ Tokia. Aitonena I.
- ▶ Gai zerrenda. 2004ko balantzea (diru kontuak, eta Uztarriak gauzatutako proiektuak eta ekimenak) eta 2005eko asmoak (aurerikontua, eta proiektuak eta helburuak).



Irudian, Uztarriako bazkideen iazko batzarra (2003-11-29).

▶ **"URTE ONA"**. Uztarriak datozen egunetan bidaliko die batzarreko gai zerrenda bazkideei. Iaz bazkide batek esan zuen gai zerrendan jartzeko egin diren gauzak eta egingo direnak ere bai, eta, beraz, Uztarriak gai zerrenda landuagoa bidaliko du aurtent.

Uztarriako zuzendaritza "oso gustura" dago azken urtean egin denarekin. "Iaz azaroaren 29an egin genuen batzarra, eta Uztarriak eta Baite Euskara Elkartek bat egin genuen. Era-kundea indartzea zen asmoa, eta uste dugu asmatu dugula. Urtea ona izan da, hainbat gauza lortu ditugulako: 1.019 bazkide gara (iaz 690), *Hitza*, *Hitze*-ko enpresa, liburuak, aldizkaria eta weba berri...".

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Julian Elorza Hiribidea 4, beheka eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefona (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

HELBIDEA ▶

TELEFONOA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

NAN edo EHNA ▶

HERRIA ▶

E-MAILA ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ Imanol Elias eta Joxe Takolo biografiak.
- ▶ *Azpeitiko efemerideak*, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ *Mendi gida*, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburua.
- ▶ *Literatuzta*.
- ▶ *Urola-Kostako Hitza*.

*HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria eta *Hitza*.



1.019

bazkide gara
dagoeneko
Uztarran;
eskerrik asko
denei

JOAN...

Gurean ▶ ANARTZ ZUAZUA

▶ aktorea

“Askotan izan naiz Azpeitian”

Anartz Zuazua azaroaren 14an izan zen gurean, bere antzerki berria, *Xomorroak*, estreinatzen.

Lehen aldia al da Azpeitian lan egin duzuna?

Ez. Lehen aldiz antzerki talde amateur batekin zuzendari gisa etorri nintzen topaketetara. Geroztik ere izana naiz topaketetan. Baina lanaz aparte ere askotan izan nahiz Azpeitian.

Anekdotarik bai?

Bai, asko gainera. Gogoratzten naiz behin parrandan nenbilela komunera joan eta beste bi mutil zeudela. Orduan nik *Jaun eta Jabe* tele-saila egiten nuen, eta han hasi zitzaizkidan, “hara, begira, telebistako txotxoloa”. Baina horrelakoak toreatzten ere jakin egin behar da. Baina ni, normalean, oso ondo tratatu izan naute Azpeitian. ◀




San Martinak auzoetan

Azaroaren 11n izan zen San Martin eguna, eta Lasao eta Bustinzuriko Errebalean festak ospatu zituzten. Bi auzo horietan ezberdin ospatu zituzten festak. Errebalean sokamuturra eta txokolatada izan ziren larunbatean, azaroaren 13an. Lasaoan rock kontzertua izan zen, besteak beste. Argazkian, San Martin egoitzako aste berezia.



Eliasek liburu berria du

Imanol Eliasek ehunka laguni buruz hitz egiten du bere azken liburuan. *Azpeitia, 500...* (*azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak*) du izenburua, eta azaroaren 20an aurkeztu zuen, udaletxean.



Bina urteko kartzela zigorra

Orain bi urteko Elegante Egunean Jose Mari Bastida orduko alkatearekin izandako liskarrak direla eta, azaroaren 3an epaiketa izan zuten herriko bederatziz gaztek. Zigorra: bina urteko kartzela, eta isunak.

Gorka Karapeto maila bat gorago

Gorka Karapeto eskalatzaile azpeitiarrak 8c+/9A maila duen Baltzolako Tas-Tas bidea egin zuen. Bide hori egin duen bosgarrena da; beste lauretatik hiru, euskal eskalatzaileak dira.



AZAROAK 3 ▶ Jabier Agirre preso azpeitiarra kartzelaz aldatu zuten, Frantzian: La Santetik Moulins-Yzeureko espetxera. Herritik 710 kilometrora dago orain. **AZAROAK 5** ▶ Bertso Parrandako kanporaketako lehen saioa izan zen, Korrale tabernan. Behetarrak eta Gu Geu taldeak izan ziren aurrez aurre, eta Gu Geu taldeak irabazi zuen saioa. **AZAROAK 8** ▶ Gotzon Aranburu presoaren epaiketa hasi zen. **AZAROAK 10** ▶ Bastida alkate ohiaren etxe alboan bi kanpingas lehertu zituzten.

ABENDUAK 3 ▶ Santo Tomas egunean postua jartzeko izen-emateko azkeneko eguna izango dute herriko taldeek. **ABENDUAK 14** ▶ Santo Tomas egunean barazkien erakusketan parte hartzeko izen-emateko azken eguna. **ABENDUAK 19** ▶ Zapo Txokotik Reala-Getafe futbol partida ikustera joateko umeentzat irteera. **ABENDUAK 31** ▶ Aizkorrira irteera, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Goizeko zazpietan izango da irteera, plazan, autobusez. **ABENDUAK 31** ▶ Presoen aldeko manifestazio isila arratsaldean, plazatik.



SANTO TOMAS EGUNA 21-EAN.

Abenduaren 21 ean Santo Tomas eguna izango da, eta urtero bezala, goizean goizetik postuak izango dira plazan; talo eta txorixo ugari egongo da nahi duenarentzat. Ederra eguna.

ABENDUAK 21 ▶ Egu osoan ▶ Herriko plazan ▶ Udalak eta taldeek antolatuta

JOSEBA AGIRRE ▶ Iraurgi Atletismo Taldeko kidea

“Aurten ere **harrera ona espero** dugu San Silbestre lasterketan”

A benduaren 31n, San Silbestre egunez, zortzi kilometroko lasterketa antolatzen dute Iraurgi Atletismo Taldekoek Azpeitian. Aurtengoa IV. edizioa izango da, eta aurreko urteetan bezala, proba arrakastatsua izatea espero dute (aurten, gainera, *Urola-Kostako Hitza* laguntzaileen artean da). Joseba Agirre Iraurgiko kideak, lasterketa antolatzeaz gain, parte ere hartuko du. “Orain arteko hiru edizioetan harrera ona izan du lasterketak, eta aurten ere horrela izatea espero dugu”, dio Agirrek. Parte-hartzaile kopurua ez da txikia izan aurreko urteetan. “Atleta asko izan dira orain arte. Iaz, esaterako, 580 helduk hartu zuten parte, eta bada zerbait”.

Ibilbideari dagokionez, bi dira; bata umeentzat, eta bestea helduentzat. “Helduen ibilbideak zortzi

kilometro ditu: plazatik irten eta Loiolara joango dira, handik Harzubitik, Zelai Luzetik Damasori buelta eman eta Etxe-Zuri aurretik plazara joango dira. Horrelako bi itzuli egingo dituzte. Umeek kalean ematen dute itzuli bat”.

Lasterketan izena emateko, abenduaren hasieran jarriko dituzte paperak Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Zumaia eta Zarauzko kiroldegietan. ◀

ABENDUAK 31 ▶
San Silbestre lasterketa.

- ▶ 12:00etan (helduak).
- ▶ Plazatik hasita. Zortzi kilometro.
- ▶ Iraurgi Atletismo Taldeak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

ABENDUAK 12 ▶
Bertso Parrandako finala.
▶ 23:00.
▶ Lagun Onak tabernan.
▶ Erriarraitz Bertsozale
Elkarteak antolatuta.



ABENDUAK 19 ▶
Krosa.
▶ 10:00etatik aurrera.
▶ Goenak.
▶ Ikasberri Kirol Elkartek
antolatuta.



ZENBAT PRESO

hainbeste galtzerdi

Enkarna Uzkudunek badaki ondo zer den senide bat preso izatea. Akaso horregatik egiten dizkie herriko presoiei galtzerdiak, hanketan hotzik ez dezaten pasa

► Testuak eta argazkiak: Amaia Mendizabal

Gerraundiko sukaldeko txokorik goxoenean, 89 urteko hatzean artean lau orratz luze hartu eta lanazko galtzerdi bero batzuk ehuntzen; halaxe topatu dugu Enkarna Uzkudun bere etxera elkarrizketa egitera azaldu denean Uztarrria. Ez da kasualitate hutsa izan, horrelaxe pasatzen baitu egunaren parterik handiena: presoentzat galtzerdiak egiten; batik bat, azpeitarrentzat.

Eskuartean duen pareta, Aitziber Ezkerra azkoitiar presoarentzat izango dela kontatu du. Izan ere, herriko preso guztien hankak berotu eta gero, dagoeneko "atzerrikoekin" ere hasi dela aitoritzen du. Ezkerrarentzat pareta berde kolorekoa da; Garikoitz Etxeberria Kafe herritarrari, aldiz, gogoan du galtzerdi gorri-gorriak egin zizkiola. "Hura ere, ni bezala, halakoxea delako: gorri-gorria". Kafe-k ez ezik Juan Karlos Arruti Pattera-k, Xabier Etxeberria Txapi-k, Jabi Agirrek... herritar preso guztiek jaso dute galtzerdi pareta. Berotu beharreko hankak ugaritzen joan ahala, orduan eta handiagoa izan da Enkarnaren grina galtzerdiak ehuntzerakoan.

Hark naturaltasunez hartzen du kontua, denbora-pasarik ohikoen balitz bezala: "Ederki pasatzen

“Garikoitz Etxeberria ‘Kafe’-ri galtzerdi gorri-gorriak egin nizkion, biok halakoak garelako”



“Senideen sehaskari eragiten nion bitartean ikasi nuen ehuntzen, txikitan”

ENKARNA UZKUDUN ►

du denbora horrela, bestela aspertu egiten naiz eta”; ea ez al den nekatzen ere galdetu izan omen diote, baina ezetz dio, irribarrehandi batez.

Enkarnak aspalditik ehuntzen ditu etxeko kideentzat galtzerdiak, “batik bat, ilobentzat”. Alaba Miren Odriozolak ere gogoratzen du eurak haurrak zirenean amak nola josten zizkien ia arropa guztiak. Izan ere, Enkarnaren izeba Donostian jostun ospetsua zen, eta ahizpak ere lanbide horri eutsi zion. Ondoren, urte luzez etxean lan gehiegi izaten zuela eta, ez omen zuen astirik galtzerdiak egiten hasteko. Illobak agertzen joan ahala, ordea, berriro heldu zion Enkarnak aspaldiko jardunari. Kartzelara bidalitako lehenengo galtzerdi pareta, berriz, duela lau urte inguru egin zuen, bere alaba Triniren lagunarentzat. Orduetik hona ez da gelditu ere egin, eta egungo bere marka galtzerdi pareta hiru-lau egunetan ehuntzean dago.

Urteen poderioz hainbeste kontu ditu gordeta buruan, eta orain Enkarna Uzkuduni ahaztu egiten zaizkio hankak bero dituztenen izenak. Ondo gogoan ditu, ordea, garai bateko pasadizoak. Izan ere, kartzela kontuak ez dira berriak Enkarnaren bizitzan.

► SENIDEAK KARTZELAN.

Enkarna Errezilen Kurutzea base-rrian jaio zen, duela 89 urte. Hamahiru senide ziren etxean eta lan asko egin beharra omen zegoen, tartean ehuntze lanak: “Senide txikien sehaskari eragiten nion bitartean ikasi nuen nik galtzerdiak ehuntzen”. Haurtzaroko oroitzapenen artean, aita kartzelan nola egon zen gogoratzen du hark: “Auzoko batek akusazio faltsuak egin zituen gure aitaren kontra, eta Donostian Ondarretako kartzelara eraman zuten, inongo kulparik gabe”. Urterik gogorrenak, ordea, iristeko zeuden, dioenez.

20 urte zituen Enkarnak Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin zuenean, eta bere mutil-laguna, Azpeitiko Gerraundi baserriko Joxe Odriozola, gerrara alde egiten ikusi behar izan zuen; denbora asko pasatu baino lehen preso hartu zuten Joxe. Hori ere, patua-ren azpikeriaz-edo, Enkarnaren aita egon zen kartzela berean sartu zutelako: Ondarretan. “Heriotza zigorra ezarri zioten. Hauteskunde garaian gure Joxe Aizarnazabalen egon zen, nazionalisten ordezkari gisa, eta eskuan pistola bat zeramala ikusi zuela zioen norbaitek. Gezurra galanta! Joxek, ordea, azkar esan zuen: ‘Ikusi nauena etor dadila ona eta



Opari bitxia

Enkarnarentzat ohikoa izanagatik, kartzelako ziegan dagoenarentzat opari bitxia bezain goxoa da 89 urteko amona batek egindako galtzerdi pareak. Askok bidaltzen omen dizkiote eskumuinak senideen bitartez. Garikoitz Etxeberria *Kafe-ri* galtzerdi gorri-gorriak bidali zizkionean, orain bi urte inguru, hark gutun bat idatzi zion Enkarnari, opari bitxi hori bidali zion amonari. Gutun horretan eskerrakematen zizkion bidalitako galtzerdiegatik.

esan dezala hori nire aurrean'. Ez zen inor azaldu, gezurra zen eta!''.

Heriotza zigorretik ihes egitea lortu zuen Enkarnaren mutil-lagunak, baina ibilbide luzea gelditzen zitzaion oraindik etxera itzuli aurretik. *Trabajadores*-etara, gatibulanak egitera zigortu zuten, frankismoko beste hainbat preso bezala. "Zazpi urte pasatu ziren hura etorri aurretik, hara eta hona ibili zutelako: lehenengo Reusera (Katalunia), gero Lezora eta beste hamaika lekutara. Hura egondako toki guztiekin akordatzeko naiz ni. Gerra bukatu eta lau urtera azaldu zen etxean Joxe, San Martin hirugarren egunez". Bitartean, Enkarnak baserrian jarraitu zuen, berak esan bezala "gizonen pare lanean". Joxe itzuli eta urtebetera ezkondu ziren, eta ordutik bizi izan da Gerraundin: "Urrea baino finagoko senarra topatu nuen nik; ez pentsa orain horrelakorik topatuko duzuenik..."

Lana gainezka, kartzela, itxaronaldi urte luzeak... Enkarna Uzku-dunek badaki hori dena zer den. Badaki, agian, bere Joxek eta aitak askotan izango zutela hantetako hotza Ondarretako kartzelako ziegan. Beharbada, beraz, horregatik saiatzeko da preso guztien hankak hainbeste maitasunez egindako galtzerdiekin berotzen. ◀

GERRAUNDIKO 'FABRIKAN'.

Enkarna Uzku-dunek ondo daki zer den kartzela, aita eta senarra preso izanak baititu. Orain preso guztien hankak berotzen saiatzeko da, haiei galtzerdiak eginez, Gerraundiko *fabrikan*.

XEBASTIAN LIZASO ▶ bertsolaria

“Bertsolaritzari ordu asko eskaini behar zaizkio”

▶ Testuak eta argazkiak: Ainitze Oruesagasti



KARIKATURAK.

Enok Sudupe hasi da
elkarrizketatuen karikaturak
Uztarrria aldizkarirako egiten.

Xebastian Lizaso, 46 urte. Horietatik hiru hamarkada bertsotan eman ditu. 16 urte zituela Gabiriko bat-bateko lehenengo saio hartatik 30 urte bete dira orain. 30 urtean bertsoa ahoan eta buruan.

Hiru hamarkada bertsotan. Zein da urte hauetako balorazioa?

Zaila da 30 urteren balorazioa egitea, gauzak asko aldatu direlako bai bertsolaritzan, baita bertsotan egiteko posturan ere. Garai batean, herri txikietan baino ez ziren izaten bertsolariak, gero ailegatu zen Belodromoa betetzera. Oro har, balorazioa ona dela esango nuke. Bertsolaritzak 30 urtean aurrera egin du, bertsotan lehen baino jende gehiagok egiten du, eta kantitateaz gain, kalitatea ere aldatu da.

Kalitatea aipatu duzu. Zertan nabaritzen duzu aldaketa?

Orain bertso hobeak egiten dira. Teknikari begiratzen badiogu, ez da hutsik egiten, baina lehen teknikan narratsago ibiltzen baziren ere, hizkuntza hobeto erabiltzen zuten eta bizitasun handiagoa izaten zen bertsotan egiteko garaian. Binakako saio gehiago egiten zen garai batean, eta binaka saioa egitean, besteari erantzun egin behar zaio, ez dago norberaren bertsoan pentsatzen hasterik, bestela elkarrizketa galdu egiten delako. Azken batean, bertso saioa elkarrizketa da, bi lagun arteko elkarrizketa kantuan. Garai bateko ateraldi eder, bizi haiek orain ez daude, baina teknika aldetik asko irabazi da.

Beraz, orain, hizkuntzaren kalitatea ez da lehen bezain ona.

Bertsoan hori nabarmentzen da. Bertsoak bizitasuna galdu du, min eman gabe, adarra jotzeko instinto hori falta da. Gauzak esateko disimulua falta da.

Umetatik bertso munduan...



BERTSOTAKO LOKOMOTORA.

Azpeitiko tren museoan bada hainbat tren. Bertso munduak ere badu lokomotora bat:

Xebastian Lizaso; motorra berotzen duenean, ezin du inork gelditu. Argazkian, tren museoan.

Bai, nik esan dezaket bertsoa sehaskatik ezagutu dudala. Ni umea nintzela gurasoek taberna zuten Landetan, aita bertsolaria izanda, bertsolari eta zaletu asko izaten zen bertan.

Aita eta semea bertsolariak dituzu. Geneen kontua al da?

Nik uste dut, giro horretan bizi baldin bazara, giroak eragina duela. Bertso giroan bizita, eta gustatzen baldin bazaizu, aproba egiten duzu zenbaitearaino balio duzun. Aprobatu gabe zail da jakiten. Orain, maila bateraino, bertsotan egiten ikasi egiten da.

Atzera begira jarrita, gogoan al duzu jendaurrean noiz egin zenuen bertsotan lehenengoz?

Bost urte nituela, Zelaixon uste dut zela. Herri Irratiko txapelketa izan ohi zen orduan, eta azken saioa eta sari banaketa Zelaixon egiten zen. Jendaurreko nire aurreneko bertsoa Mugartegiri sari

bat ematerakoan kantatu nuen. Jakina, bertsoa aitzak egin zen, eta bertsoaren bukaera behin ere ez zait ahazten gainera. Azkenengo bi puntuak gogoan ditut oraindik: *Nere eskutik hartu ezazu merxetako sariya / betiko lagun izan daitezen Gipuzkoa eta Bizkaya*. Gero eskolan eta santa eskeko bat-batekoak aparte, Amabirjin bezpera baten Gabirin izan zen, justu aurtan 30 urte. Urtebete lehenago hots egin zidaten Gabiriko sariketan parte hartzeko, eta agindu eta ez nintzen joan. Aitari galdetu nion, eta berak nahi nuena egiteko, baina "gaztetako burukoa gero gogoan izaten duk" esan zidan. Orduan, gure etxean asko ibiltzen zen Arroako *Don Juan txikiya*, bertso gaiak-eta jartzen ibiltzen zen apaiza, eta hari zer egin galdetu eta hark "gaztetan hartutako muturrekoa gogoan izaten duk". Biek gauza bera

esanda, ez nintzen batere joan. Hurrengo urtean, 16 urterekin joan nintzen.

Mugartegiri kantatu zenion bertsoa gogoan duzu. Nolakoak ziren, ordea, zure hasierak?

Lehenengo bertso haiek ikasitakoak izan ziren. Ni bat-batean bertsotan santa eskean, ate ondoan hasi nintzen, 10-11 urterekin. Pixkanaka bi puntura izaten zenez, tartean hasi nintzen bertsoa moldatzen, aldatzen, bertso berriak egiten. Buruko mekanika lantzen.

Plazetan gehien ibiltzen diren artean al zaude?

Bai, bagabiltza 3-4 bat bazter gutzietan ibiltzen garenak, Argiñanorekin perrexila bezala. Horiak modak izaten dira, eta ez dakit, gure modak ez du honezkero askorik iraungo, baina azken bolada honetan plaza faltarik ez dugu. Noizean behin, jai bat jai izatea

loteria da. Bertsolaritzari ordu asko eskaini behar zaizkio. Hitz ematen baduzu, joan egin behar duzu.

Jai bat jai, loteria diozu. Horrelakoetan zer egiten duzu?

Nahi dudana. Askotan bertsotara joan behar dudanean, etxean gelditzeko gogoia izaten dut. Gero jai dudanean, etxean gelditzeko aukera izan eta kanpora irtetzen naiz. Jai izatean, aukera dut neure buruari eskaintzeko, irteteko edo egoteko, nahi dudanerako.

Mahai inguruko bertsolariaren fama duzu. Hala al zara?

Ni ez naiz behin ere txapelketa zalea izan. Mahai inguruan aritzean, gai librean ari zara eta bi bertsolariarekin. Zailagoa da, gaiak bilatu egin behar dituzulako, baina, bestetik, zeure papera errazago betetzen duzu, zeure lekutik jarduten zarelako. Gaia ematen badizute, gaiaren paperean sartuta ibili behar duzu. Libre ari zaren garaian, askoz ere bertso gehiago kantatzen da. Gainera, denbora gehiago daukazu hankasartzeren bat egin baduzu, edo nahi duzuna esan ez baduzu, hurrengo bertsoan esateko. Gaia jarritakoan 3-4 bertso izaten dira, askotan ez duzu izaten denborarik barruan duzuna emateko. Askotan gorputzaldiak ez dira berak izaten, egunetik egunera alde handia egoten da.

1986an Euskal Herriko Bertso Txapelketan txapela lortu zenuen. Zer oroitzapen dituzu?

Goizean nahiko garaiz jaiki nintzen. Buelta txiki bat egin, gosaltu eta Belodromora. Goizeko saioan, han nonbait nenbilela banekien, baina ez nuen txapelarekin ametsik egiten. Arratsaldea etorri zenean, zozketa egin eta »



PILDAIN
Inmobiliaria

Harzulia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: javier@pildaininmobiliaria.com

» zortzikoetan aurrenaintzela uste dut. Kartzelako gaia etorri zenean, ikusi nuen hor nonbaiteko papera egin nuela, eta bertsoak ez ziren beste munduko gauza bat. Haiek baino bertso hobeak askotan kantatu ditut nik. Gero ikusi nuen Xabier Amurizak ez zuela asmatu, Jon Lopategik ere ez... Urte haietan puntuak bistan ematen ziren, guk ez genituen ikusten, baina jendeak bai, eta jendearen erreakzioak ikusten genituen, jendea kinuka... Belodromoko jendeak batuketak eginak zituen. Ezuste ikaragarria izan zen, garai hartan oso faborito zirelako Amuriza eta Lopategi.

Txapel hark zertarako balio izan dizu?

Txapelak balio izan zidan ezagunagoa egiteko, bertso plaza gehiago izateko eta konpromiso gehiago izateko. Azken batean, txapelketa hark markatu zuen gehiago ibiltzeko modua. Erreferentzia bihurtzen zaitu txapeldun zaren unetik.

Zer da 1986ko txapel hori zuretzat?

Garai hartan, artean *Basarri* bizi zen; hiru egongo ginen txapela lortutakoak. Geroztik, Lopategik eta Andoni Egañak badauzkate. Azken batean, zuk egindako lan batensaria da. Une hartan zer bait adierazgarria izan zen. Horrek ez du esan nahi gero izango zarenik. **Bertso txapelketa gerturatzean, ez al duzu enbidiarik sentitzen?**

Ez, zezanak ederki ikusten dira barreratik. Nik, azken bertso txapelketara, 2001. urtean, ez joatea erabaki nuen. Orain txapelketan lagunak entzuten ere sufritu egiten dut, baina oso sufrimendu ezberdina da.

Azkar-azkar

Doinu bat. *Uso txuria.*

Neurri bat. Zortziko handia

Bertsolari bat. Andoni Egaña.

Bikotekide bat. Andoni bera.

Landeta. Jaio nintzen eta gustura joaten naizen lekua.

Bertso afaria edo plaza.

Berdin dit; giroak agintzen du.

Urtean zenbat plaza egiten dituzu. 150 inguru.

Eta zenbat kilometro. 60.000 inguru.



Bertsoa

Xebastian Lizasok 1986an Euskal Herriko Bertso Txapelketa irabazi zuen, eta bertso haxe abestu zuen txapela buruan zuela: *Merezi edo merezi gabe txapel ta guzti kantari, bere zati bat eskeintzen diot hurbildu dan jendetzari, beste zati bat bihotz-bihotzez eskeintzen diot aitari, txaloak parte hartu dezuten bertsolari guziari.*



Xebastian Lizaso, bost urte zituela, Mugartegirekin, kopa jasotzen.



Abel Enbeita irabazleari saria eman aurretik, Xebastian bertsotan.

Jendea harrituko litzateke, beraz, hurrengo bertso txapelketara aurkeztuko bazina.

Bai, gehien neu. Ez dut uste txapelketetan parte hartzera bueltatuko naizenik. 1986an txapela atera eta geroko urteetan, biga-

ren eta hirugarren postuetan ibili nintzen. Nik podiumean nengoela utzi nuen txapelketa, eta horrela beste batzuei utzi lekua.

Zuk esana da bertsolaritza aparkatu eta urte sabbatikoa pentsatu izan duzula.

kitzika joyería

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan

Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.76.13 AZPETA

LORADENDA
IRENE
ALAI
TUNAY

Lore Sortak
Koroak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25



- Dieta pertsonalizatuak
- Kontsulta naturista
- Elikagari biologikoak
- Kirolarientzat elikadura
- Kosmetika naturala

Jose Artetxe, 8

Tel. 943 81 27 50



Herri Irratiak Zelaitxon antolatzen zituen bertso txapelketen finalean, Joxe Mari Iriondo mikroa eskuan duela, Xebastian Lizaso bertsotan.



Xebastian Lizaso, 13-14 urterekin, Angel Larrañagari, orduko bertso txapelketako irabazleari, garaikurra ematen.



Zelaitxoko bertso txapelketen finalean Lizaso, zazpi urterekin, Joxe Luis Gorrotxategirekin.



Xebastian Lizaso, 1986ko Euskal Herriko Bertso Txapelketan, txapela irabazi ondoren.

Espainiazbarre

"Seguran sanjuanetan udaletxean hiru bertso bota, eta plazako saioa hasi bitartean zahar-etxera joaten gara. Andoni Egaña eta biok ginen egun hartan bertsotan. Andonik bertsoa kantatu zuenean, emakume batek '¡Viva España!', esan zuen ozenki. Eta gu harrituta gelditu ginen. Kontua da, andrea Burgosko herri txiki batean jaioa zela eta umea zenean agintariak etortzean deidar hori esaten erakutsi ziotela. Berak han herriko jendea eta bi kantuan ikusi zituenean ba... andreak bazituen 90 urtetik gora. Nahiko barre egin genuen".

Neguan eta udaberrian ez dut horrelakoetan pentsatzen, baina behin maiatzetik atzera eta trote handian hastean, ez naiz bertsotan soilik aritzen, eguneroko lanari ere segitu behar zaiolako. Gorputza nekatzen denean, 'dios, nik hemen, horrelako freskatu bat hartzeko, ez al dut hobe eten bat egitea?' pentsatzen izan dut. 'Han konpromisoa, hemen ere bai, hara urtero joaten naiz', noiz eten eta non eten ere pentsatu egin behar da. Nik badakit seguru urtebete sabatiko hori hartzera iritsiko banintz, zaila litzatekeela bertsoetara bueltatzea. Gogo txikitu eta herdoildu egingo nin-

tzateke eta... Orain, burua gelditzen ez bazaizu, ez zara herdoilduko, baina urtebete sabatiko hartu behar baduzu, horrek esan nahi du burua ere gelditu egin behar duzula, bestela alferrik da.

Lizaso-Egaña bikotea ezaguna egin da azken urteetan. Non dago sekretua?

Herriak egiten ditu bikoteak, eta herriak aukeratzen du bikotea. Elkarren nahiko osagarriak gara bertsotan. Ondo moldatzen gara. Egañak ironia handiagoa dauka, eta nik ateraldi desberdinak. Nik betiko herriak izan duen forma edo ironia hori daukat, eta Egañak, berriz, ironi landuagoa. Biok gaudenean, beti ni hasten naiz, eta bera bigarren eskutik etortzen da. Ez da segitu soilik egiten duena, bigarren eskutik etorri eta bidea jartzen duena da. Bi bide jartzaile elkarrekin ondo osatuz gero, bide luzean joaten daiteke neure ustez.

Bertsotan noiz arte?

Nik ere ba al dakit ba! Azken batean, joandako tokian egiten duzun onena bertsolaritza dela ikusita... Hori denborak erakutsiko du, kuerda noiz arte. Orain, ez naiz ikusten 60 urterekin bertsotan, seguru asko lehenago aspertuko naiz. Norberarentzat denbora hartu behar da noiz edo noiz. ◀

elkarriketa osoa
www.uztarria.com-en



Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ARTE
ETA DISEINU
IKASTEGIA

> Talla19:30/21:00
> Pintura
(helduak)..... 17:30/19:00
> Dibujo eta eskulanak
(haurrak)17:30/19:00

Ikasturte hasiera: urriak 4
Matrikula: 17:30etatik 19:00etara,
astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
669 414 025
beapozo@euskalnet.net



Urola kalea, 1 pabilioia 4 - 1
20730 Azpeitia
Telef. eta faxa: 943151346

frankismoko IKURRAK

Hil zen Franco, eta bukatu zen frankismoa. Ez, ordea, frankismoko irudiak, Azpeitian oraindik badaudelako garai hartako ikurrak

▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

29 urte bete ziren azaroaren 20an Franco espainiar diktadorea hil zenetik. 29 urte, beraz, Franco gabe, baina ez frankismo garaiko ikurrik gabe, oraindik herriko bazter eta txokotan zenbait ikur topa daitezke eta.

Karrera batzuetako fatxadetan argazkian bezalako zenbait plaka daude falangisten –plakaren ezkerreko irudia– ikurrekin. Orduan etxea egiteagatik laguntzak ematen zituen Espainiako Etxebizitza Ministerioak, eta derrigorra zen horrelako plaka jartzea. Laguntza jaso zela adierazi beharra zegoen. Lehen herriko etxebizitza ugarritan zegoen, aspaldian gutxi gelditzen dira, baina, hala ere, oraindik badaude.

▶ **ESKUMENA.** Udaleko iturrien hitzetan, ikur horiek kentzeko eskumenak Eusko Jaurlaritzak ditu; honek eman behar du baimena kentzeko. Hala ere, horrenbeste urte pasatu ondoren, norberak kenduta ere, “ez zaigu iruditzen gaur egun ezer gertatuko denik”. Izan ere, etxe horietako asko dagoeneko ez dira babes ofizialeko etxeak. ◀



Azpeitiko karrera batean dagoen frankismo garaiko ikurra; ez da bakarra.

“Franco zure etxean?”

Joan den azaroaren 20an, Franco hil zela 29 urte bete ziren egunean bertan, haxe idatzi zuen batek uztarria.com-en: “Kaixo, azpeitiar euskaldun hori. ‘El Diario Vasco’-ren eroslea bazara, fijatu: jo eta Franco etxeko sukalderraino sartu zaizu gaur, azaroaren 20an. Ez al duzu ikusi? Gaurko egunez sartzen zaizu ba beti. Hara, joan zaitez gaurko DV-ren 18. orrialdera eta hantxe duzu. Primo de Riverarekin batera [eskelaz ari zen]. ‘Ilustres hijos de España’ dira biak, eta zorte handia izan omen dugu (ez dakit zeinengatik ari den; DV-ren erosleei zuzendua dago...) ‘de poder tener a Francisco y a Jose Antonio para el mejor servicio de nuestra patria’. Bueno ba, ondo pasatu biekin gaur. Ah, eta bihar ere erosi DV, jakina”.




ARTALDEA HERRIAN.

Badator negua, eta neguan ardiak ere hoztu egiten dira eta lekuz aldatu behar izaten dituzte. Joan den azaroaren 20an ateratako argazkia da goikoa, eta ardiak Arauntzatik Oñatzerako bidean ziren, herria gurutzatu zutenean. Larunbat goiza zen. Polita da irudia. Eta bitxia garai batean bezala ardiak herri erditik pasatzen ikustea. Ohiturei eusten diete batzuek, beraz. Argazkian, artaldea Damaso inguruan.

► Testua: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Nerea Uranga

Efemerideak ▶ hilabetea



Altor lantegia.

urte bukaeran AGUR

Urteari agurra, Euzkitzek plazei agur...
abenduan adio ugari izan dira herrian

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

1998-ABENDUAK 10 ▶

Bertsolaritza. Xabier Euzkitze bertsolariak agur esan zion plaza plaza bertsotan jarduteari. Soroluzen kantatu zuen azkene-koa; momentuan erabakitako agurra izan omen zen. Hona agurrean bota zuen bertso hura: *Bertsoak denetik du gazi eta gozo / batzuetan gazitik gehiegi akaso / Kasik atzo goizean esan nuen kaixo / agurrera iritsi naiz pausorik pauso / Adio bertsozale maite zaitut oso.*



Xabier Euzkitze.

1927-ABENDUAK 12 ▶

Agur Urrestillako kamionerue. Ramon Garate *Urrestillako Kamionerue* hil zen. Pultsolari aritu zen munduko onenekin norgehiagoka; besteak beste, Raku japoniarrekin neurtu zituen indarrak. Horrez gain, herrira itzuli zenez geroztik, 1920tik aurrera harri-jasotzaile erakusketak ere egin zituen.

2000-ABENDUAK 12 ▶

Lantegia erre. Landeta auzoan zegoen Altor lantegiak su hartu zuen eta dena erre zen.

1851-ABENDUAK 21 ▶

Apustuak. *Artxola* eta *Zuneta* palankariak neurtzekoak ziren zortzi librako palankarekin aritzeko. Baina Zuaneta ez zen agertu.

1934-ABENDUAK 27 ▶

Erietxe berria. Lazareto eraikinean, tuberkulosiaren aurkako erietxea jartzea erabaki zen. Izan ere, herritar ugari zen gaixotasun horrek jota orduan. Errukietxean toki bat prestatzen zen bitartean egon zen Azpeitian behin-behineko erietxea. ◀

Pertsonaia ▶

INAXIO ARREGI.

Inaxio Arregik Eibarren Urko mendira 104 kiloko burdinarekin igotzeko saiakera egin zuen. 09:00etan abiatu zen Eibarko tren geltokitik, baina ezin izan zituen mendiaren gailurreraino zeuden lau kilometro eta erdiak igo.



Datua ▶

15

URTEAN ENPARANEN.

1989an eraman zuten Udal Liburutegia Enparan Dorretxera. Orduz geroztik bertan da. Beraz, aurten abenduaren 13an 15 urte beteko dira liburutegia bertan kokatu zenetik. Aurretik Santiago kalean izan zen liburutegia.

Argazkia ▶



UROLAKO TRENA.

Urola bailara zeharkatzen zuen Urola trenaren aldeko manifestazioa egin zen herriko kaleetan 1987ko abenduaren 20an. Jende ugari izan zen manifestazioan, baina bazen falta zenik ere. Izan ere, EAJ eta PSOE alderdiek ez zuten parte hartu bertan.

Kontua da... ▶

Hartu edo lapurtu



Imanol Elias
Odriozola

Gaur egun, pertsonak bezala dute ganaduek euren nortasun agiria; guk patrikan, haiek belarritik zintzilik. Zenbait tokitan gure fitxa osatzen duten bezala, ganaduen berri ere jasotzen da. Nekazariak ganaduak zaintzen ditu, baina lapurreta bat baino gehiago ezagutu dira herriaren historian.

Inazio Goenagak salatu zituen Antonio Amenabar, Joan Iruin eta Ana Mari Arrizabalaga, ahari bat lapurtu ziotelako. Inazio Ulaziak berdin egin zuen Manuel Galarragak ardi bat lapurtzean. Dirudienek, ganadu gehiago zituzten bereganaturik Inazio Egibar eta Antonio Ibarbiak 1711n, beraien jabeak adierazi zutelako ahari bat eta arkumeak ostu zizkiotela.

Atxumarria baserritik zazpi txerri lapurtu zizkion Antonio Kortak Jose Kerejetari. Lau urte geroago, berriz, arkumeak lapurtu zituzten Elormendiko bordatik. Matias Iparragirrek adierazi zuen 1773an tratu

txarrak eman zizkiotela Fermin Larrañaga eta Magdalena Ibarzabalek, ondoren ganaduak lapurtuz; inguruko baserrietan ere gauza bera egin zutela zioen.

Loiolan atxilotu zuten Manuel Apellaniz eibartarra, Zenarruzan lapurtutako ardiekin osatutako artaldea zuelako. 1830ean salaketa bat egin zuten Luis Altuna, Jose Odriozola eta Antonio Astiazaranek, Manuel Ugarte *Atauntxe* zenaren aurka, Erraztibaso inguruan behiak lapurtu zituelako. Urrutiratu gabe, Aratz-errekan, leporatu zitzaion Frantziskanen baratzatik ahari bat lapurtu zutenez, baina gehiago ere izanik tartean, ahari bera jateko egin zuten bazkarian parte hartu zutenez aipaturiko biek ez ezik, Gabriel Berrasoeta eta Pedro Arzalluzek. Hauek ziklo guztia bete zuten: lapurtu eta jan, gainera!

Eguberriak gertuan ditugula kontuan izanik, zorion eta bakea irakurle guztiei.

Garai bateko Azpeitia ▶ Juana Valverdek kontatua

dendan, DENETIK

38 urte daramatza دندان lanean Juana Valverdek, urte asko eta esperientzia asko bildu ditu horrenbeste urtean

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

Goiko kalean du denda gazte gaztetatik Juana Valverdek. Sendiaren negozioak izan dira betidanik bertan eta ederki ikasiak ditu dendako kontuak. Gaztetan, eskola bukatu ondoren, etxean pasatzen zuen eguna Juanak, etxeko lanak egiten, josten. "Lana, lana, ezingo diogu deitu horri", esan du. Baina 20 urterako seguru etxean lan asko egindakoa zela.

Denda, amak ireki zuen, Juanak berak 20 urte zituela. "Aurretik nire osaba batek izan zuen harategia bertan, baina familiako inork ez genuen ikasi ofizio hori eta, beraz, ezin izan genion jarraitu ofi-

zio horri eta itxi egin zuen", gogoratzen da. Urte batzuk itxia egon ondoren, gero oraingo denda ireki zuten. "Orain 38 bat urte ireki genuen; amak ireki zuen, baina gero familia guztiak egin izan du lan hemen. Laguntza behar zenean hemen izaten ginen", adierazi du.

Urte hauetan guztietan denetik

“Gu beti aldaketen erara ibili izan gara, eta produktuak aldatu diren heinean guk ere aldatu egin behar izan ditugu”

JUANA VALVERDE ▶ dendaria



Garai bateko Goiko kalearen itxura. Eskubialdean dago Valverde denda.

saldu izan dute دندان. "Lehen, orain eta gero ere denda batean ahal den guztia salduko da". Beti ahal duten dena saltzen saiatu omen dira, beraz, eta gaur egun ere ahal duten dena izaten dute دندان. Denetik aurki daiteke Valderdenekoan.

Baina nahiz eta urte hauetan gauzak asko aldatu, ez omen luke asmatuko zertan aldatu den esaten. "Gu beti aldaketen erara ibili izan gara, eta produktuak aldatu diren heinean, guk ere aldatu egin behar izan ditugu, eta egia esan, ez nuke jakingo gehien zer aldatu den esaten. Gainetik dena aldatu da, baina denak jarraitzen du berdin, azken batean. Lana bera da, saltzeko modua ere bera da. Azken batean, produktuek ere antzekoak izaten jarraitzen dute", dio.

Juanak hor segitzen du egunero-egunero bere دندان lanean. Azken 38 urteetan egin duen bezala, orain ere egunero goizez eta arratsaldean han izaten da traste guztien artetik bezeroak eskatukoaren bila. ◀



Hitz gezidunak ▶

	* DEITURA	▼	Ibar	▼	Tuberkulu mota	▼	Liburua	▼	Ekintza
	Sesio		Jaurtiketa		Bi zati bi		Islandia		
	▶		▼		▼		▼		▼
	Pl., usain txarra	▶							
	Mendebal- dean, zen								
* DEITURA	▼	Hots ozena	▶	▼			Z birritan	▶	
Zain egon		* IZENA					Pl., kolore mota		
▶		▼				Eskaini eta ez eman	▼		
						Musika nota			
Lurreko ebakia	▶				Gizon izena	▶	▼		
Euskal sindikatura					53				
▶			Oxigenoa	▶	Litioa	▶	Jainko egiptoar	▶	
			Nire		Inozoren kontso.		Bihi, ale		Ohorezko hitz emate
Emakume izena	▶		▼		▼	Interjek- zioa	▶	▼	Kontso- nantea
Zientzian aditua						Lehena eta azkena			Nori atzikia
▶						▼		▼	
100 m2	▶				Arrain mota	▶			

* Futbol entrenatzailea

Pasarte kodetua ▶



Alaitz Olaizola idazle azpeitiarraren pasarte bat (*Clitemnestraren itzulera*) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

E	G								T
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	A	B				R			
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

1	5	1	17	14		2	12	14	10	1	11	1
4		1	10	12		7	12	5	12	14	10	16
	2	12	14	10	1	11	1	4		12	3	16
17		13	12	10		8	1	6	1	4		11
12	16	9	1	4	1	11		2	1	17	13	
18	13	4	10	12		14	1	11	12	9	12	11
16		11	16	10	12	11		11	1	17	13	12
14	10		8	12	16		1	11		9	12	
1	2	16	4	1	17	13		2	1	17	10	12
10	11	1	4		1	10	12					

Soluzioak ▶


HITZ GEZIDUNAK

N	I	K	O	Z	I	●	A	E	R	A	●
I	R	A	L	A	I	Z	T	N	E	I	Z
Z	●	E	O	●	I	N	E	R	I	L	●
●	A	R	●	L	I	●	O	●	B	A	L
O	I	A	M	●	A	G	N	A	Z	●	
I	A	T	●	N	O	A	R	X	T	I	
Z	Z	●	A	T	A	R	Z	●	I	●	
K	A	K	S	A	T	R	K	●			
A	D	A	B	A	T	A	E	Z			
I	●	P	●	H	●	●	●				

PASARTE KODETUA

"Eseri gaitzezen eta lasaitu gaitzen apur bat. Hemen zaudenez gero, kontu lezadazu zutaz zerbat. Hau ez da egunero gertatzen eta", Alaitz Olaitzola

Zein da hau? ▶



UZTARRIAREN AZAROKO ARGAZKI LEHIAKETA

zer da hau?



Iturri txiki



irabazlea



Juana Mendiola Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 56. irabazlea. **Zuhatz tabernan** afaria irabazi du sari gisa. Argazkian, Juana –eskubian– eta Zuhatz tabernakoa.

ERANTZUTEKO EPEA ▶

Abenduak 16 (osteguna)

NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

ZER TOKI DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Eclipse Kultur dendako oparia

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrarian bazkide izan behar da


Otamendi
Pelu Donde
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49


Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak:
943 15 16 40

Koh Tao 
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

DIETETIKA ETA ELIKADURA
AHOLKULARITZA

LEIRE EZKURRA
dieta pertsonalizatuak
"osasuntsu jaten ikasi"
JONE ETA MAIKAR
Julian Elorza, 7
Tel 943 81 38 98


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zaindu ▶ Ardoa

Julian
Bereziartua



Frogatua dago gastronomia arte bat dela, eta jaten jakiteak bere garrantzia duela.

Gosea dagoen lekuetan janariak hitz egitea zentzugabea da, baina hemen, beharrezkoa. Gai hori alde batera utziko dut, gaur gazteek ardoaz jakin behar dutena aztertuko baitut.

Garai batean ardo pixka bat ematen zitzairen, odola egiteko balio zuelakoan. Gauregun ez da horrelakorik sinesten. Haurren organismoa eraikitzen doa eta alkoholik ez zaie eman behar; ez eta bizigarriak diren edaririk eta janaririk ere. Baina zuek esango didazue hori posible den.

Muga bat ipintzeaz, hamabost urte bitartean ez dute alkoholik probatu ere egin behar, gibeletoko eta burmuineko narriadura saihestea nahi badugu. Eredugarriak izan behar dute gurasoek neurritz edaten. Ez nago ados, ardoaren dohainak ez zaizkiela azaldu behar esaten dutenekin. Ni taberna batean jaioa naiz eta beste gauza asko baino lehen ikasi nuen ardoa ateratzen. Hala ere, ez dut inoiz pentsatu gertu nituen ardo eta koinak botilek tentazioa zutenik niretzat.

Behin hamabost urteko muga hori igaro ondoren, gurasook dugu hitza semeengan eragina izateko eta otorduetan ardoa edaten erakusteko, eta inoiz ez, jakina, urdaila hutsik dagoela.

MARIA JESUS GURRUTXAGA ▶ jostailu saltzailea

Olentzero edo erregeak?
Olentzero.
Zer duzu nahiago: kotxea edo panpina?

Panpina.
Adin bat?
2 urtekin 5-6 arte.

Jostailu bat?
Pelutxea.
Pilekin edo gabe?
Pilarik gabeak.

Jostailuak umeentzak bakarrik al dira?
Ez, adin bakoitzerako jostailu ezberdinak daude.

Neskentzako zer?
Panpinak, ontziak...

Eta mutilentzat?
Kotxea, puzzlea...

Opariak jasotzea edo egitea?
Dudarik gabe, egitea.

Opariak gabonetan baino ez al dira egin behar?

Ez, urte osoan. Opariek ez dute datarik.

▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe



Abizena ▶ Iriarte

Armarria.

Zilarrez egina da armarrria. Haritz berde bat dago kolore bereko zelai batean. Enborraren aurrean bi otso gorri daude aurrez aurre.

Banaketa semantikoa.

▶ Iri + arte.

Esanahia.

Batzuen iritiz, 'garoa'. Beste zenbaitek, berriz, 'herri edo hiri artean, tartean' esanahia duela esan izan dute.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Urretxu.
- ▶ Bidania.
- ▶ Valladolid (Espainia).
- ▶ Hernani.
- ▶ Oresa.
- ▶ Elgoibar.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Urretxu (1546, 1671).
- ▶ Zestoa (1674).
- ▶ Elduaian (1565).
- ▶ Tolosa (1627, 1664, 1669).
- ▶ Arrasate (1742).
- ▶ Errenteria-Orereta (1733).
- ▶ Asteasu (1671).
- ▶ Donostia (1680, 1691, 1728).



Esandakoa ▶

“Euskalduntzeak eman du eman beharrezkoa, nahiz guk oraindik talde gehien horretarako izan”

AINTZANE AGIRRE ▶

Udal Euskaltegiko zuzendaria

“Txabolan ditudan 70 usoak elkarren artean bereizteko gai naiz”

MIKEL SAGARDOGI ▶

uso haztailea

Zenbat ▶

166

LASTERKALARI.

166 azpeitiarrek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa aurten. Eta asko eta askoren maila, gainera, txarra ez!



Gertuko pasadizoa ▶

azpeitian PARRANDAN

‘Euskaldunon aberia’ liburutik

hartua ▶ Argitaratzailea: R&B

Kriseilu ▶ 1994 ▶ Egilea: Pako Aristi



10. KAPITULUA ▶ Gaztetxo nintzelarik (29. orrialdea)

“Gaztetxo nintzelarik, orain herriko gaztetxoek niri zuzentzen didaten galdera berdina egiten nien beste batzuei, martxa aldetik motelak diren egunetan Azpeitira tragoak hartzera joaten zirenean: ‘Baina jende gutxi ibiliko zen, ezta?’, izaten zen dezepzioak mozorroturiko itauna.

Gero eta sarriago praktikatzan dugun ohitura bathartu dugu aspaldian nik eta nere lagun-txoek. Ostiral eta igandetan ateratzen gara parrandan, ez larunbatetan, ohikoa den bezala, mogoiloia egunean. Gaztetxoei aspergarria iruditzen zaie inor ez dabilenean taber-

nak pasatzen joatea, eta haien galderak barnean dauka, eztaarrik ateratzerako, kondanaren indar bizia. Galdera horren aurrean nere erantzuna beti igoala da: geu nahikoa gara, bi, hiru, lau edo garenok garela, ondo pasatzeko.

Gaztetxo nintzelarik jendea behar nuen, mundua jende horren bitartez ezagutzeko, interpretatzeko eta maitatzeko; interesgarriak iruditzen zitzaizkidan pertsona haiekin hitz egiteak salbatzen zituen gauak; eskolako konplizitateaz begiratzen ninduen neska hura topatzeko askatzen zuen nere bakardadearen agobia konpainiaren zoriontasunerantz.

Jende berriak nitaz hitzegiten zuenean bakarrik sentitzen nintzen norbait banintzela.

Orain gauza guzti hauen premiak bukatu zaizkidan edade berri batera bultzatua ikusten dut nere burua, heldutasuna edo agian zahartzea izan daitekeen aro berri batera. Jende asko ezagutu ondoren, ideia, teoria eta iritzi errepikatu amaigabeak entzun ondoren, maitasunean sorpresarako ahalmena galdu samartu ondoren, badirudi edade batetik aurrera garrantzitsuagoa dela gauzak nola kontatzen diren, esaten dena baino. Istorioak berdintsuak dira han eta hemen, lehen eta orain; neska bat ezagutzearen prozesua ezaguna zait. Garrantzitsuagoa da istorio horiek nola kontatzen diren, eta halako neskaren ezagubidea nola hasten den, gero nola jarraitzen duen itxarotea baino.

Horregatik nahikoa dugu nik eta nere lagun-txoek jende guxidun tabernetan elkarrekin egonda. Denok dakizkigun istorioak kontatzea besterik ez dugu egiten, baina beti ezberdin, bati edo besteari une batean sortzen zaion grazi bereziaz nabarmendurik beti. Ezagunak ditugun neskekin ere ohizko pikareska lantzen dugu, jakinda behin gertatu zenak hala behar zuela eta orain ez dugula hura aldatuko, eta itxaropen sutsuagoak, denok ere, beste batzuentzat gordetzen ditugula garbi daukagularik”. ◀

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealday.com



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



kutxa
gizarte ekintza

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00	Anbulategia	81 51 00
Udaltzaingoa	15 13 13	Anbul.-larrialdia	81 12 01
Suhiltzaileak	112	Asepeyo	81 44 00
Azpeitia Lantzen	15 71 83	Gurutze Gorria	85 32 97
Iraurgi Lantzen	85 11 00	DYA-Donostia	46 46 22
Nekazal Bulegoa	81 24 85		
Iturritiki Ludoteka	15 11 79	KOMUNIKABIDEAK	
Zapo Txoko / GIB	15 71 61	Uztartaria	15 03 58
INEM	15 04 02	Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Kiroldegia	81 30 69	Hitza (Zarautz)	89 00 17
Igerilekua	81 41 21	Azpeitian Zer?	81 11 00
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80	Berria	943 30 40 30
Aitonena I	81 51 71	Gara (Herriak)	943 31 69 99
Aitonena II	81 23 89	Deia (berriemailea)	943 72 57 75
Epaitegia	02 51 91	DV (berriemailea)	943 15 09 94
Ingurumen Etxea	81 24 48	Argia	943 37 15 45

OSASUNA

LARRIALDIAK

112

Nabarra 948 22 71 25

Arrate Irratia (berriemaia) 81 26 32

Loiola Herri Irratia 81 44 58

Euskadi Irratia 943 01 23 00

Kaito Telebista 81 53 35

Izarraitz Telebista 85 13 05

ETB 943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ 81 55 70

Habea 15 72 00 (138)

EA

PSE-EE

PP

81 00 11 Antxieta Etxea 81 35 40

15 72 00 Kontseilua 943 59 12 00

15 72 00

IKASTETXEA

Iraurgi 81 02 10

Iraurgi (Betharram) 81 16 68

Iraurgi (Milagrosa) 81 63 80

Iraurgi (Jesuitinak) 81 22 49

Ikasberri 15 12 46

Karmelo Etxegarai 81 26 97

Urola BHI 15 02 28

SINDIKATUAK

ELA 81 34 46

LAB 15 13 56

EHNE 81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa 81 45 18

Udal Euskaltegia 81 19 47

AEK 15 10 89

EHE 15 10 89

Udal Liburutegia 15 71 95

Loiolako Liburutegia 81 65 08

Uztartaria Kultur Koor. 15 03 58

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.) 273 posta

Xoxoteko aterpea 58 10 07

Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

665 72 39 79

Farmaziak gauez ▶ abendua

4-5-16-28

Aranburu (Azpeitia).

943 81 13 50

17-29

Beristain (Azpetia).

943 81 19 49

1-13-18-19-30

Etxebeste (Azpeitia).

943 81 59 74

2-14-31

Garzia (Azpeitia).

943 81 12 74

3-15-27

Zulaika (Azpeitia).

943 15 03 34

11-12-20-21

Azpiazu (Azkoitia).

943 85 29 89

6-7-22-23-24-25

Jaen (Azkoitia).

943 02 65 15



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna: 09:00-13:30

▶ Larunbata: 09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena: 14:00-21:00

▶ Beste astegunak: 07:00-21:00

▶ Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00

▶ Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astelehena: 09:00-13:00, 15:00-21:00

▶ Beste astegunak: 15:00-21:00

▶ Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:
astegunetan: 09:00-13:00

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala: 17:00-20:30

▶ Larunbata: 16:00-20:30

LUDOTEKAKO ORDUTEGIA GABONETAN.

Herrian bi ludoteka daude: bat Santiago kalean eta bestea Sanjuandegin. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:30etara irekitzen dituzte. Gabonetan goizez ere irekiko dituzte. Gabonen bueltan, berriz, 17:00etatik 20:00etara irekiko dituzte. Argazkian, Santiagokoa.

Garraioa ▶

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87



TAXIAK

81 13 07

LUIS MARI GALDOS ▶ atleta

Behobia, pisua mantentze aldera egin dut aurten”

▶ Testuak : Ihintza Agirretxe ▶ Argazkiak: Luis Mari Galdos eta Kepa Urbieto



TXIKITAKO AMETSA.

Luis Mari Galdos txiki-txikitatik ibili izan da kantuan. “Zazpi urterekin triplea nintzen”. Gero, ordea, “ahotsa aldatu” egin zitzaion eta baritonoa izan zen gaztetan. “Beti kantuan ibiltzen nintzen txikitan, eta nik operako kantaria-edo izan nahi nuen”, gogoratzen du.

Luis Mari Galdosek 63 urte ditu, eta urrian Behobia-Donostia proba egin zuen. Baina beste prestaketa batzuen barruan sartzen omen du hori; izan ere, beste burutapen batzuk ditu aurrera begira.

Zenbat aldiz egin duzu Behobia-Donostia?

Lehen, zazpi urtean segidan egin nuen [behe-beheko argazkian Jon semearekin], gero bost urtean ez nuen egin, aurten berriro egin dut (2.07.45). Hurrengo urterako pisua mantentze aldera egin dut. Datorren udan, beterrak mundialetan parte hartu nahi dut, altuera jauzia egiten.

Zer dela-eta altuera jauzia?

Gaztetan, 21-23 urte bitartean, Realeko atletismo taldean ibili nintzen; Gipuzkoko errekorra ere izan nuen, 1,80 metroko altuera saltatu nuen junior mailan. Orain ikusi egin behar gauza al naizen. Behobia horri begira egin dut.

Noiz irten zenuen lehen aldiz?

1993an, 52 urte nituela. Ni gazte gaztetatik ibili izan naiz kirola egiten; mendia dela, edo lasterka dela, beti mugitu izan naiz. Lasterka gutxitxo ibiltzen nintzen behar bada, ordura arte ez nituelako inoiz egin 20 kilometroko progak eta gauza al nintzen probatze aldera joan nintzen. Gero zazpi urtetan segidan egin nuen; izan ere, nik uste pixka bat engantxatu egiten duela proba horrek.

Zergatik bost urteko etena?

Lana dela-eta buruhauste asko izaten dira, eta gogorik ez nuen. Lasterka ibiltzen nintzen arren, behar bezala ez nuen prestatzen, gero lesio bat ere izan nuen...

Beste afiziorik ba al duzu?

Bai, niri beti gustatu izan zait gauza ezberdinetan ibiltzea. Antzerkian ibilia naiz, baita koruarekin ere, danborradan zuzendari... Abesbatzan Donostiako Easo abesbatzan ibili nintzen. ◀



ondo egiten al dugu EUSKARAZ?

Azpeitia herri euskalduna da, eta gehingoak egiten du euskaraz. Baina ongi hitz egiten al dugu euskaraz herrian? Zein dira akats nagusiak? Kalitate onekoa al da?

► Marrazkiak: Iñaki Martinez

► **NOLAKO KALITATEA?** Baina gatozen gaurko gure harira: nolako kalitatea du Azpeitiko euskarak? Labur esanda, nahiko kalitate ona du, nire ustez, baina hobea izan lezake. Fonetika, entonazio eta espresibitate aldetik ongi gabiltzala uste dut. Jendeak bere artean erabil ditzakeen erdaratik hartutako hitzez gain, badira esamolde txiki asko euskaldunen

Bestetik, ni kezkatzen nauen beste gauza bat da euskaldunon "itzultzeko ahalmen" txikia. Oso bitxia egiten zait kalean ibili eta, hamabost urte inguruko mutil euskaldunen ondotik igarotzean, "motoa hartu eta *ochentan* jarri nian" edo "kotxeari *segunda* sartu" bezalakoak entzutea. *Ochenta* eta *segunda* ez dira euskarazko hitzak, baina konturatu gabe erabiltzen dituzte beti euskaraz hitz egin eta ikastolan ikasi duten arren, nahiz eta "ni *segundo* pisuan bizi nauk" ez esan inoiz. Berez ondorioztatu behar lukete "*segundo piso*" bigarren pisua esaten bada, "*segunda marcha*" bigarren martxa esaten dela. Baina ez da hala gertatzen: gure hizkuntz ahulezietako bat da, euskaratik erabat desitxuratzera eramaten duena.

AKATSAK ▶

Adibideak.

▶ Gutun bat idatzi zien
eskerrak ematen
(Eskerrak emanez
gutun bat idatzi zien).
▶ Gaur nire zorionak

AZTERKETA ▶

Kike Amonarrizek euskararen kalitatea aztertu dute. Hona hemen Egañak *Urola-Kostako Hitza*-n esandakoa:

► “Ematen du euskara *xibarita* bat nahi dugula. Eta ez da hori. Urteak daramatzagu zuzentasunari atxikiegiak, eta bada garaia jatortasunari eutsiz, egokitasunari begiratzeko”.

»  Jose Luis Otamendi (idazlea)

Maita dezagun gutxiago

Euskara pobretzen ari zaigula ikusteko ez dago lau begiren beharrik. Ez da kontu berria baina, akaso, orain abiada izango da bizkorragoa. Ez dakit aurreko belaunaldiak alderatuta guk galdu dugun gehiago, edo gure hurrengoek izango duten galera larriagoa gurekikoan. Lehen giro politikoa zen arrotzena, orain kontsumo kulturak jotzen du gogor. Ordea, kezka nagusia aurrera nola eta zerekin egin da. Sekula baino bitarteko gehiago daukagu eskueran eta ezin dugu.

Funtsean, kantitateari eta kalitateari eutsi dio Azpeitiak. Hala ere, egungo premiei erantzuteko tresna edukitzeak sortzen ditu burukomina. Kalitatea eta erabilera. Erabiltzen dena ez da horren erraz kamusten, azalberritu egiten da eta beti dago gertu egoera zahar eta berriei itxura antzean erantzuteko. Baina erabiltzeko ere egokiera behar da, bideak. Ezin kondenatuko dugu geure burua bakarrikzeta etengabe batean erotzera. Ez dugu bihurtu nahi museo, museoan herri honetan. Komunikazioa da hizkuntza. Hiztun komunitate homogeneo samar bat da gure itxaropena.

Ditxa handia daukagu, hala ere, geure kas-

karrean. Bailara hau Euskal Herriko eremu kaletar edo erdi-kale-tar euskaldunena hortxe-hortxe izango da. Bizirik eta bizia daukagu euskara kalean, etxean, lanean, asko eta ondo egiten da, prestigio bat badu gaur egun... Kontrario handiena, berriz, kontzientzia txikia eta kontzientzia motz samarra izatea dugu. Izan bagarela eta, pentsatzea garena baino gehiago garel. Berez emana etorri zai-gun iturri bete horretatik tarteka edan eta horren emana sekula ez dela agortuko uste izatea. Ikasteko egoskor, aldatzeko nagi eta beti prest galtzen ari garenagatik makakorroka hasteko. Nikuste satisfazio hori dela hizkuntza bat kaliterik gabe ez ezik, hiztunik gabe gelditzera daraman jarreretako bat.

► **BITARTEKOAK.** Bitartekoak jarri behar ditugu normal euskaraz egiteko, jendarteko eta hizkuntza eremuetan. Okasio bakoitzerako behar bezala jantzita. Hori egiteko geu beste inor ez dago. Gu geu ala inor ez. Baina ez dezagun kalitate falta lan gutxiago egiteko aitzakia hartu. Bitartekoak jarri, exijitu eta lortu.



Seguru asko gazteek zaharragook txitean-pitean to eta no ikusiko bagintuzte, emakumezkoei ez litzaieke horrenbeste toka egingo. Denok denean tajuz ariko bagina ez litzateke ez sintaxia traketuko, ez hiztegia mermatuko. Akaso, maite dugunaren erdia erabiliko bagenu, ahalik eta alor guztietara zabalduz eta goratuz, etorkinek eta bertakoek ere aiseago egingo lukete euskararen aldera. Zertarako gaude adin eta jatorri ezberdineko jendea herrian, bakoitzak daukagun ondare parte elkarri emateko ez bada? Hori modu antolatuta batean eratzen dago lana. Ganbara aldean obrak egiten hasi beharra daukagu, mentalitatea eta jarrerak aldatu. Andoni Egaña joan den azaroaren 7an *Urola Kostako Hitza*-n zioen bezala, konplejuak galdu eta kanal nazionalak eratzen saiatzeko garaia da. Komunitate euskaldun moderno bat eratzeak ardua daukagu, gure euskara pobretu baina aberats hori landu eta gure herriari eskaintzeko ardua daukagu XXI. mendeko Urolako euskaldunok.

Nahi bada maite dezakegu gutxiago, baina egin dezagun gehiago.

 Aitor Arruti eta Arantzazu Azpillaga (euskal filologoak)

Zaharra ongi berritu

Bizirik dagoena aldatu egiten da ezinbestean, hobera edo okerrera. Hori jakinda, geure esku egoten da kaltea ekarriko digun aldatetarako prestatzea. Beste hainbeste gertatzen da hizkuntzarekin ere, Azpeitian eta edonon. Hizkuntza biziaren aldaketak bideratzea geure esku dago, neurri handi batean.

Ahoa betean aurkezten dituzten hizkuntza egitasmoak heritar guztien esku ez badaude ere, norberak bakarrik aukeratzen du gaur egun erabili nahi duen hizkera. Inguruak indarrez bultzatzen gaitu, egia da, baina edozein aldaketaren aurrean jarrerarik erosoena hautatzen dugu askotan: esaldi boladakoak lehenbailehen erabiltzen hasten gara, ez dezatela esan modernoak ez garenik!

Horrelakoetan ez gara konturatzen beste alor batzuetan hain gogorki borrokatzen dugun indartsuenaren inposaketari men egiten diogula. Auzo-hizkuntza askoz sendoagoak hobesten ditugu, haien egiturak geurean txertatuz: *¿Quedamos mañana?* = Geratzen al gaituk biyer?*. Aldi berean, erdaratik datoren hitzen bat erabiltzeari barre egiten diogu, berez egitura berriak erabiltzea baino askoz egokiagoa izan arren: "Nola esan dezakek 'lagunekin akordatu nauk', ez al dakik orain 'lagunek faltan bota ditziat' esaten dela?"

Egiturak bereizten du hizkuntza bat gainontzekoetatik. Hitz solteak hizkuntzaren berezko izaera apaindu edo zatartzen duten makillajea besterik ez dira. Betiko egiturari eusten badio-



gu, edonondik jasotako hitz berriak arazo handiegirik gabe erabili ditzakegu. Hori egoki egiteko, esaten dugunaz konturatzea nahikoa da gehienetan.

Esate baterako, neska bati hika mutilari bezala egiten dionak, egindakoaz konturatu eta aldatzea nahi baldin badu, berehala ohitzen da zuzen egiten. Baina halakoak jasan behar dituen neskak berak ere eragin dezake aldaketa: hika neska mutilitzen (aizak neska!) due-nari mutila neskatuz (aizan mutil!) erantzun!


Horrelakoak ezagutu ditugu, eta, gehiegi aztoratu gabe, denon onerako aldaketa errazak eragin izan dituzte.



plaza txiki, 7
Tel.: 943 81 23 67

2004ean zergatik ez gabon zoriontsuak eta urte berri on?

Zoriondu etxekoak, lagunak, bezeroak... euskaraz



* Gaur egungo umeei opariak egitea ez da txantxetako lana !!!

salgai
herriko
liburudendetan

hitzeko

euskara eta komunikazio zerbitzuak

Goiko kale 5, 3A
Tel.: 665 723979
hitzeko@hitzeko.com

itzulpenak - euskara planak - komunikazioa - produktuak

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)**Udala, euskara eta EBPN**

 Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak bi hitzaldi antolatu omen ditu: bata azaroaren 22an eta bestea 23an. Gaiak interesgarriak, baina 'arazotxo' bat; biak gazteleraz izango dira. Nola uler daiteke gurea bezalako herri euskaldun 'euskaltzale' batean hitzaldiak gazteleraz hutsean antolatzea nork eta euskara eta EBPN hitzetik hortzera erabiltzen dituen Udalak? Hizlariak ez al dakite euskaraz? Eta hala bada, ez al dago gai horiei buruz (*bullying* eta emakumeen aurkako indarkeria) euskaraz hitzaldia emateko gai den inor Euskal Herri osoan? Nola uztartzen dira jarrera hori eta EBPN? Inola ere ez.

▶ Arantzazu

Trenaz

 Paretik pasatu eta beti begiko minarekin bukatzen nuen trenbidean *Atención al tren* kartela ikusita. Ba, atzo, Lasao aldera pasieran nindoala, paretik pasatu eta ezustea: kendu egin dute *Atención al tren!* Kartel bat, behintzat, bai. Eta beste bat jarri: *Kontuz trenarekin* handian, eta azpian, txikiagoan, espainolez (ea denborarekin hori

ere...). Beraz, hura kendu, erakunde publikoek kendu dute. Azpeitia, aurrera doan herria...

▶ Miren

Kinttela Zezenzale Elkarte

 Zezenketa mundua erdararekin lotu izan dugu beti; Azpeitian eman digute motiborik horretarako. Urriko Uztarria aldizkarian ikusi nuen aurtengo zezenketetako sarrerak espainolez zeudela. Iaz, zezenplazaren mendeurrena zela-eta ere, plazako bertako ekitaldia erdaraz egin zuten antolatzaileek. Hara non, ordea, ezuste atsegina hartu

nuen atzo Kaito ikustean: Jose Luis Frantsezena *Schubert*, Azpeitiko Musika Bandako zuzendariari omenaldia egin zion Kinttela Zezenzale Elkarteak, eta afa-londorengo ekitalditxoan hitzaldiak euskaraz egin zituzten: Xanti Jimenez elkarteko idazkariak, Schubertek berak, Iñaki Alberdi bandako kideak, Garikoitz Mendizabal txistulariak... Erdaraz, elkarteko lehendakariak baino ez zuen egin; donostiarra da hura, ez daki euskaraz, eta, beraz, elkar-teak badu zer hobeturi hizkuntza aldetik. Kontuak kontu, azken batean aurrera egin dela iruditzen zait.

▶ Ander

IZARO ALKORTA ETA JOXE MARI GALARRAGA ▶ Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea eta kide ohia

“EHEn 25 urteen balorazioa gazia eta gozoa da aldi berean”

▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

Aurten 25 urte dira Euskal Herriaren Euskaraz taldea Euskal Herri mailan sortu zenetik. Azpeitian bost urte beranduago sortu zen. Uztarria Joxe Mari Galarraga sorrerako kidea eta Izaro Alkorta oraingo kidearekin izan da.

Zer dela-eta sortu zen EHE?

Joxe Mari Galarraga. Artzeren esaldia zuen koadroa erosi nahinuen eta horretarako Donostiara, Euskararen Txokora joan nintzen. Azpeitian EHEko talderik ba al zegoen galdetu zidaten han, eta horrela hasi ginen biltzen, Aitor Larrañaga, Jose Luis Otamendi eta hirurok.

Zein helbururekin sortu zen?

Galarraga. Azpeitian kontraesan asko ziren, eta dira. Herritarren %87 euskalduna da orain, eta orain 20 urte gehiago. Azken batean, indigena batzuk gara geure

herrian eta indigena denen arazo berak ditugu.

Izaro Alkorta. Helburuak berak dira: normalizazioa eta ofizialtasuna. Gu orain osasungintza arloan ari gara lanean.

Zein da 25 urteren balorazioa?

Galarraga. Nirea gazi-gozoa da. Gozoa, guk erein genuen hazi horri jendeak jarraitzen diolako. Gazia, berriz, 25 urtera mahai honetan eta horrela bildu beharragatik. Euskararekin horrela ibili beharrak min ematen dit.

Alkorta. Azken batean, guk hasieratik eskatzen duguna, Euskal Herriko edozein lekutan euskaraz hitz egiteko eskubidea da.

Hori lortzeko zein da bidea?

Galarraga. Hori lortzeko zerbait egin behar dugula pentsatzen dugu, eta hori eskubidez tokatzen zaigun zerbait da.



Izaro Alkorta eta Joxe Mari Galarraga, elkarriketan.

Galarraga. Indioen eta indigenen arazo bera da guk daukaguna hemen.

Zein da funtzionamendua?

Alkorta. Herrian bertan egiten ditugu bilerak. Gero eskualdeka biltzen gara. Ondoren Gipuzkoa mailan, eta gero Euskal Herri mailan. Arduradun bat ere badugu.

Nola erabakitzen da lan eremua?

Alkorta. Ildo batzuk markatuak daude, eta herri bakoitzak arlo bat aukeratzen du. Guk osasungintza aukeratu genuen.

Galarraga. Lehen ere horrela zen, lan era ez da aldatu. Guk euskararen erabileraren inguruko inkesta egin genuen.

Zein dira EHEn ekintzak?

Alkorta. Orain bi urte sinadura bilketa bati ekin genion, orain mozio bat aurkeztuko dugu anbulategian euskara lan tresna izan dadin eta eskaerarekin Udalak bat egitea eskatuz. Medikuen euskalduntzea eskatzen dugu.

Galarraga. Bidea hori da. Ez baduzu kalera irteten, ez dago biderik. ◀



Euskararen gorabeherak ▶




GORA. Pildainen lokal berria

Pildain inmobiliaria lekuz aldatzera doa. Eta hori adierazi du lokal berriko erakusleihoan (Harzubia kalean). Euskaraz adierazi ere. Gure hizkuntza ez baita traba.



BEHERA. Soziedadearen hasiera, erdaraz

Sanjuandegin soziedade bat irekitzekotan dira. Eta kartelak jarri dituzte, jendeak izena emateko. Erdaldunengana zuzendu dira, kartelak erdaraz atera dituztelako.



Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

 **902 19 43 32**

Eskubidea ▶

“Eskubidea dugu Euskal Herrian hizkuntza politika bakarra finkatu dadin euskara babesteko, bere jarraipena ere aginte bakarreren esku utziz, zatiketa administratibo eta politikoen gainetik”

Euskal Herrian Euskarazen ‘Bideak’ eskuliburutik hartua; Uztarrian dago edonoren eskura

Albisteak ▶

Euskararen erabileraz EHE

Euskal Herrian Euskaraz taldeak erakunde publiko politikoetan euskara zenbat erabiltzen duten aztertu du, eta azterketaren emaitzetako bat honako hau izan da: instituzioetan –udaletxeetan, batzar nagusietan...– egin diren bi mila interbentzioetatik 174 baino ez dira egin euskaraz.

Azpeitian udalbatzarrak euskara hutsean egiten ziren aurreko legeintzaldia arte. Oraingoan, ordea, Julia Tercero PPko zinegotziak ez daki euskaraz, eta batzarraren esandakoa itzuli egiten diote. Normalean, zinegotzi bakoitzak lehenik euskaraz esaten du esan beharrekoa, eta ondoren Tercerori laburtu egiten dio. Habeakoek ez dute esandakoa itzultzen, eta udal idazkariak, alkateak edo beste norbaitek itzultzen du Habeakoek esandakoa.



www.lasao.com



prest...
 zoriontsu izateko



beibi

b a b e s a

7 urtetik aurreko neska toentzat

GAZTETXO ZU ERE DESBERDINDU ZAITEZ!!!

Xanjuandei auzuen gaxauden! Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 151369

Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatila

Informatika zerbitzu teknikoak



Zerbitzu Tekniko azkarrak

Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserrak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaketa

Sareen mantentzea

Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

WEB orrien diseinua eta mantentzea



2002 Corporate

2001 Tienda

2001 Escaparte

Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Euskaltel Leihoa



Komunikazio osoa puntu bakarrean, zure etxean

☎ - Nahi beste dei probintzia barruan hilean 7 €

@ - 24 orduko tarifa finkoa 22 €

☒ - Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkolitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Behea
Telf: 943133385

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel